



ttiipi-ttapa

2015eko maiatzaren 14a | XXXV. urtea | 638. zenbakia

erran.eus



→ 6
Lehenbizikoa bizkaitar batek arrantzatu du

Ttipi txartela

Zozketak

→ 47

IGANTZI → 14

Udaberri On jaialdian
Sutagar izanen da

DONEZTEBE → 18

Nafarroako Folklore
Eguna igandean

BERROETA → 31

Mendekoste Egunean
apustu handia izanen da

SENPERE → 37

Berinak arte garaikide
jaialdia ikusgai



Herriarekiko sentimendua indartzeko eskola zabaldu dute Aranon

Herriko euskalkia atzerantz zihoala eta herriko umeek beste herrietako adibideak dituztela ikusita hasi dira egitasmo berri hau lantzen. Udala da bultzatzailea, baina herritarren laguntzarekin ari dira aurrera eramaten. Herriko hainbat gai jorratuz hilabetean behin saio bat egin nahi dute. Bereziki neska-mutikoei zuzendua dago, baina nahi duen guztiarentzat zabalik dago. **ERREPORTAJEA → 4-5**



Beste txapel bat Leitzara

Merezimendu osoz, Binakako Pilota Txapelketako txapela jantzi du Oinatz Bengoetxeak, Alvaro Untoria lagun duela. Baina geldirik egoteko astirik gabe, binakakoa irabazi berritan, buruz buruko txapelketan hasi da leitzarra. Gainera, beste bi urterako kontratua berritu du Asegarcerekin, 2017ko apirilaren 30era arte, hain zuzen.

→ 36

Saioa DIOSDADO MIGELTORENA | Malerrekako Gure Esku Dago-ko kidea

ELKARRIZKETA → 3

«Lanean segiko dugu etorkizunean gure borondatea egiazko hautetsontzietan azaltzeko aukera izan arte»

Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, ekainaren 21ean Euskal Herriko hiriburuetan egingen den Josten Eguna izanen da erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldi nagusia. Baina horren



atarian, hainbat ekimen egingen ari dira han eta hemen. Horien berri eman digu Gure Esku Dago-ko kideak.

❄️ INDARRI ❄️

Maiatzaren 20an,
25 URTE beteko ditugu
mila esker guztioi!!!

T. 639 103 305

➡️ ttipi-ttapa

UDABERRIKO ESKAINTZA BEREZIAK

KOSKONTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.eus | www.kulturkari.com | erran.eus

50 ale ↔ **89€**
KARTELAK (A3 neurrian)

100 ale ↔ **93€**
KARTELAK (A3 neurrian)

250 ale ↔ **126€**
KARTELAK (A3 neurrian)

KOLORETAN | DISEINUA BARNE | INPRENTA BARNE | GARRAIOA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EGUN



Herritarren borondatea oihal koloretsuetan adierazi eta bata bestearekin josita, hautetsontzi erraldoiak osatzeko deia luzatu du aurten Gure Esku Dago ekimenak. Ekainaren

21ean Euskal Herriko hiriburuetan ospatuko den Josten Eguna izanen da ekitaldi nagusia, baina aurrez girotzen joateko ehuntzen egunak, kamiseta eta oihal salmentak... egiten

ari dira han eta hemen. Puntadaz puntada herri bat josi nahi da, bide bat landu, «etorkizun hurbilean gure erabakia egiazko hautetsontzietan azaltzeko aukera izan arte».

Saioa Diosdado Migeltorena | Malerreko Gure Esku Dagoko kidea

«Etorkizun hurbilean, gure erabakia libreki azaltzeko bideaosatzen goaz»

E. IRAOLA | DONEZTEBE

Zer antolatu da ekainaren 21erako?

Euskal Herriko hiriburuetan hautetsontzi erraldoiak osatzeko ditugu ekainaren 21ean, herritarrek erosi eta apaindutako oihal zatiak josiz. Oihal horietan gure helburua zein den, zer lortu nahi dugun... idatzi edo marraztea da asmoa. Hautetsontzi horrek etorkizunean errealitate bihurtzea nahiko genukeen hautetsontzia irudikatu du. Nafarroako ekitaldi nagusia Iruñako zezen plazan egingen da arratsaldean baina horretaz gain, egun osoko egitaraua ere prestatu da: kalejirak, musika... Herritarrek elkartzeko aitzakia izanen da eta elkarrekin indarra egitekoa.

Nola funtzionatuko du oihalen sistemak?

Oihal-unitate bakoitzean 20 lagunek parte hartuko dute. Hala, taldeka elkartuta norbere oihal-zatia izango dugu, eta nahi duguna marraztu eta idatziko dugu bertan. Gure oihal-zatia pertsonalizatzeaz gain, euro bat ordaindu eta saretu-txartela beteko dugu. 16 urtetik beherakoek, oihal-zatia marraztu eta euroa ordaindu ondoren, ez dute saretu-txartela bete beharrik izango. Oihal horiek erabiliko dira gero ekaineko hautetsontzi handiak osatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mallerrekako ehuntzen egunean, Donezteberen izenean parte hartu zuen taldea.

Non eskuratu ditzakegu oihalak?

Apirilean egin diren ehuntzen egunetan eskuratu dituzte askok beraien oihalak eta eskualdean antolatzen diren azoka eta ekitaldi nagusietan eresalmenta-postuak jarriko ditugu. Horretaz gain, internetez ere eman ahal dugu gure atxikimendua oihal-zati digital bat erosiz. Gainera, orain arte iritsi ez garen jendearengana iristeko, tutorearen figura ere sortu dugu. Oihala 20 pertsonaz osatzen da. Arduradun bat dago, oihala osatzeko 20 pertsonak biltzeaz arduratuko dena. Horrela eskubaloitaldia hurbildu gara, dantza taldekoak

HELMUGA

«Jendea biltzeko, lanerako prest bada-go, indar hori ezin da geldiarazi. Bide bat egiten, josten ari gara. Herri mailatik abiatutako ekimena da eta mezu argia du, helburu berdina badugu, ahaztu borrokak, etiketak eta goazen batera. Herri bat garelako, herritarren garaia delako eta erabakitzeko eskubidea dugulako. Baietz edo ezetz libreki erabakitzekoa».

etorri zaizkigu interesa erakutsiz... Talde desberdinetara hurbiltzea ahalbidetzen du honek.

Urtean zehar girotzen joateko ekimenak ere egin dituzue...

Apirilaren 25ean egin genuen Malerreko ehuntzen eguna. Egun osoko besta izan zen eta iaz antolatu genuen herri kirol txapelketak arrakasta haundia izan zuela ikusita, bigarren txapelketa egitea pentsatu genuen. Jende asko elkartu zen eta Aurtitz, Zubietta, Elgorriaga eta Ituren-go taldeak irabazi zuen. Jendea elkartzeko aitzakia izatea nahi genuen eta lortu genuen. Gainera 26 oihal saldu genituen; horrek 520 lagun

inplikazioa lortu genuela esan nahi du. Gure esku dago ekimenaren lorpen nagusia hori dela uste dut, ordura arte herrian antolatzen ziren ekimeneetan parte hartzen ez zutenengana ere iristea lortu dugula. Bitxikeria bezela polita izan zen Donezteboko Ehuntzen egunean gertatutakoa. Herritar batzuk beraien josteko makinekin etorri ziren etxetik eta esan ziguten josteko norbait behar baduzue, nik badakit eta utzi hori nire esku. Jendea inplikatu egiten da, gogotsu dago eta dakiten eta ahal duten moduan parte hartzen dute. Gainera, Malerreko herri bakoitzera iristen saiatu gara, kontakturen bat eduki eta Jostunak dokumentala ere herriz herri eman da.

Helmuga hurbil dago?

Jendea biltzeko, lanerako prest bada-go, indar hori ezin da geldiarazi. Bide bat egiten, josten ari gara. Herri mailatik abiatutako ekimena da eta mezu argia du, helburu berdina badugu, ahaztu borrokak, etiketak eta goazen batera. Herri bat garelako, herritarren garaia delako eta erabakitzeko eskubidea dugulako. Baietz edo ezetz libreki erabakitzekoa. Eta lanean segiko dugu etorkizun hurbilean, gure borondatea egiazko hautetsontzietan azaltzeko aukera izan arte.



ARGAZKIA: MARTA OLAIZOLA

Apirilaren 25ean egin zuten herrigintza eskolako lehenengo saioa Aranon eta ume asko bildu ziren.

GIZARTEA → HERRIGINTZA ESKOLA ARANON

Herriarekiko sentimendua, ezagutza eta ilusioa bultzatzeko eskola

Hori da Aranon Udalak herritarren laguntzarekin martxan jarri duen herrigintza eskolaren helburu nagusia

Aranoko euskalkia atzeratzen ari zela eta herriko umeek beste herrietako adibideak

dituztela ikusita hasi dira proiektua lantzen. Apirilaren 25ean egin zuten lehenbiziko

saioa eta aurrera begira proiektuari segida eman nahi diote, hilabeteen saio bat eginez.

G. PIKABEA | ARANO

Aranoko herri kultura berreskuratu eta sendotzea. Laburbilduz, horixe da Aranon martxan jarri duten herrigintza eskolaren abiapuntua. Baina egitasmoa hortik harago doa, «herriko ttikiei-nei Aranoko aberastasun kulturala eta herriari lotutako nortasun sentimentua transmititu nahi diegu. Gure umeek herria ezagutzeko modua ere bada: herriko kultura, historia, bazterrak, ohiturak, herriko jarduerak, toponimia...». Ha-

laxe azaldu digu Ainhua Ansa alkateak. Udala da proiektu honen bultzatzailea, baina nabarmendu digunez, «herritarren laguntza ezinbestekoa da; herritarrei esker eramaten ari gara aurrera».

Eta zergatik jarri duten proiektu hau abian? Bada hutsune batzuk antzemanak zituztelako: «Aranoko umeak beste herrietara joaten dira eskolara, Goizueta batez ere, eta Hernani eta Donostiara bakan batzuk. Herritar batzuek, eta Udalak ere bai, gure eus-

kalkia pixka bat atzeratzen ari zela nabaritu genuen. Egoera normalean da, kanpoan ikasten baitute. Euskalkiaren atzerapenaz gain, beste herrietako adibideak edo gaiak bareratuagoak zituztela ere ikusten genuen». Kulturen, adibidez, «asko nabaritzen dela» aipatu digu Ansa. «Inauterietan, esaterako, kaldereroak eta Goizueta-ko Zahagi dantza ezagutzen dituzte, pertsonaiak zein diren eta nondik datozen badakite, eta Aranokoak behar bada

ez. Gurasook erakutsitakoa eta herrian ikusitakotik aparte, herriko gaiak ez genituela behar bezala lantzen nabaritu genuen». Eta hortik abiatu ziren. Horren jakitun izanda, Nafarroako Kultura Fundazioak dirulaguntza deialdia ateratu zuen, eta hara aurkeztu zuten herrigintza eskolaren proiektua.

Ez dakite diru-laguntzarik izanen duten ala ez, baina egitasmoarekin aurrera egitea erabaki dute: «proiektua polita delako, eta itxura ba-

tean behintzat jendearen artean erraz sartzeko moduko egitaraua egin daitekeelako», dio Aranoko alkateak. Hilabeteen saio bat egitea gustatuko litzaiokeela onartu digu, «nahiz eta pretentsio handi xamarra irudit...».

LEHENENGO SAIOA

Herrigintza eskolaren baitan, joan den apirilaren 25ean egin zuten jende aurreko lehenengo saioa. Baina Ansa azaldu digunez, «inauterietan, Aranoko inauterien inguruko materiala Goizueta-ko eskolara bidali genuen, gure herriko umeek beren gelakideen aurrean gure inauteriak nolakoak diren erakusteko aukera izan zezaten. Hori izan zen herrigintza eskola planteatu aurretik egindako proba». Eta behin proiektua martxan jarrita, apirilaren 25ean lehenengo saioa egin zuten: «Suro auzorajoa eta auzoko baserriarekin goiz-pasa antolatu genuen». Neska-umeek baserriko lanetan murgildu ziren.

Ateraldi hartan egin dakoarekin eta izandako erantzunarekin «oso



HERRITARREI GONBITEA

«Herrian dagoen jakintza erakusteko gogoa duten guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera, bakoitzak bere esparrutik»

Ainhua ANSA
Aranoko alkatea




UTZITAKO ARGAZIAK

Aranoko neska-mutikoak baserriko lanetan, Suro auzora egindako goiz-pasan.

pozik» gelditu da Udala. Halaxe baieztatu digu Ansak. Kontatu digunez, «2 eta 12 urte bitarteko 30 ume bildu ziren beraien gurasoekin. Udalaren balorazioa oso positiboa da, Suro eza-gutzeaz aparte, goiza elkarrekin pasatu genuelako». Eta nola ez, gogoa izan ditu Suroko bizilagunak ere: «eskerrak eman nahi genizkieke beren baserrietako atek irekitzeagatik eta esku-zabaltasunagatik». Guraso eta haurrentzako ere baditu esker oneko hitzak: «gogo onez parte hartu zuten eta baserrietako jendeak hori ere eskertzen duela uste dut».

Aurrera begira «herria «zirikatu» izana ere «oso positibotzat» jo du, «jendea hau edo beste egiteko prest agertu delako». Beraz, proiektuak segida izanen du: «Santioak bitarte bi saio darabiltzagu buruan, batetik, herri-tik Burninera goiz-pasa egitea eta bestetik, herriko artisauekin, eta garai bateko artisauek gogoraziz, tailerra egitea».

Badituzte bestelako gaiak ere mahai-gainean: sagardogintza lan-



tzea, kantagintza eta herriko kontuak, bertsolaritza, kirol tailerra, mineralak, mairubaratzetan barna ibilaldi gidatua, sukaldaritza tailerra, sendabelarrak... Ansak dioen bezala, «gaiak nahi adina badaude. Herriarena den eta herritarrek eman nahi duten edozer gauzak balio baitezake». Bide batez, «herrian dagoen jakintza» erakusteko gonbidapena ere luzatu die herritarrei: «erakusteko gogoia duten guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera, bakoitza bere esparrutik».

Ez dute aurtengo urtera mugatu nahi proiektua: «umeak badaude eta zer ikasia beti badago. Proiektuari segida emate-

tea polita izanen litzateke», dio alkateak.

Tailerrak egitearekin batera, material didaktikoa ere prestatu nahi dute, Goizuetako eskolan aurkezteko. Gisa hone-tara, «Arano ezagutzeko tresnak eskura izan ditzaten». Argi utzi nahi izan du «gure asmoa ez dela eskolari ezer exijitzea, gure umeek eduki dezaketen gabezia bat aritzeko modu bat bilatzea baizik, eskolaren osagarri eta eskolarekin nolabaiteko elkarlanean. Esan behar dugu eskolan gure ideia azaldu genienean, haiei ere polita iruditu zitzaizela egitas-moa. Material xumea hor egongo da erabili nahi duenaren eskura».

NOLA IKUSTEN DUTE ARANOARREK PROIEKTUA?

Kontxi KLABER | GURASOA



«Oso ideia polita da, ume eta gurasoak biltzeko eta kanpotik etorritakoei Aranoko bizimodu ezagutzeko aukera ematen dielako. Umeek Goizuetako kulturaz badakite edo hango hizkera ere erabiltzen dute, baina ongi bereizten dute non goak diren eta une bakoitzean non dauden. Aranon hemengo hizkera egiten dute eta herria asko maite dute. Proiektuak segida izatea gustatuko litzaidake, baina jende gutxi gara, bakoitzak bere erritmoa du, eta askotan zaila da elkartzea».

Nerea AIERBE | GURASOA




«Surora egindako ateraldia oso ekintza polita iruditu zitzaidan, denontzat ederra. Baserriko bizimodua ezagutzen ez dutenentzat esperientzia berria eta polita izan zen. Proiektuak aurrera jarraitu beharko luke, hilean behin edo bitan zerbait eginez, ez dadila ekintza isolatua izan. Beste gai asko daude lantzeko eta herri giroa mantendu eta bertako gauzak ezagutzeko proiektu polita da».

M^a Jesus ZUGARRAMURDI | SUROKO BIZILAGUNA



«Aranoko hizkera galtzen ari dela nabaritzen dut. Pena da, baina guraso asko erdaraz somatzen dira eta haurrak Goizuetako eskolara joaten badira, normala da hango hizkera egitea eta Aranokoa apaltzea. Proiektu honek ez dakit zenbateraino lagunduko duen Aranoko hizkera berreskuratzen, baina oso ongi iruditzen zait, oso polita da. Herriko umeek ezagutzen ez dituzten gai asko dago lantzeko».

Ander MUJICA | GAZTETXOA



«Horrelako ekintza gehiago egitea gustatuko litzaidake. Arano herri lasaia da, eta planak egiten ditut, baina ez beti, nire adinekori ez dagoelako Aranon. Surora egindako lehenengo ateraldia ona izan zen eta gustura ibili nintzen. Gazta egiten eta sega pikatzen ikasi nuen».



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Hautatzeko aukera

Lau urteko gozaldi eta sufrikarioen ondotik, ailegatu da berriz ere hautatzeko tenorea. Zein alderdiri, zergatik eta zertarako eman konfiantza botoa? Joaki den agintaldi sasoiaren onurak eta kalteak gainbegiratzeko oreka eta aldekoak nahiz kontrakoak baloratzeko memento hitsa dugu. Betikoarekin itsuki fidatu edo bertzeren baten papertxoak aukeratu, lehengoa zigortzeko edo "berriarekin" proba egiteko. Bertako behar, kultura eta mintzaira ahalik eta zintzoen zainduko dituzten herritarren alde bozkatu, edo hori egiteko interes pizarrik ere ez eta "Ocho apellidos vascos"-ekin gozatu zuten esploratzaile bazter-nahastaile arrotzen alde egin? Eta azken urteotan Nafarroa gezurrez eta miseriez, ekonomikoki hondoratu eta kulturalki zanpatsu duten esku zuriak batera ahalkerik gabe dabilta erregimenarekin segitu nahian. Hori guzia aldatzeko ahalmenik izanen al dugu? Aspaldixkotik gabilta esperantza luzatzen eta gogoa nekatzen, baina ez dezagun su pinttar hori itzaltzen utzi!

«Ez dezagun
su pinttar hori
itzaltzen utzi!»

Ezpala
Aitor AROTZENA

Andaluzian euskaraz

Ozu! Zein jatorrak diren *bajko* hauek bere zortzi abizen euskaldunekin! *Ole!* Zein kaskarroak eta maitagarriak *aquí abajo* etorri eta bere baserritar doinu bereziarekin espainolez solasten dutenean! *Ele!* Gure grazia eta saleroaren ondoan idor xamarak izan arren, zein sukaldari bikain eta sinpatikoak dituzten! "Gabon, gaurko...". *Calla, kiyo!* Aupa Gaizka eta animo Joseba!

Nabarmentzekoak



Juan Jose SANCHEZ
Bidasoko Lehenbizikoa



Oinatz BENGOTXEA
Binakakoan txapeldun



Joanes ILLARREGI
Eskolartekoan txapeldun

Lehen aldiz bizkaitar batek arrantzatu du Bidasoko Lehenbiziko izokina. Sasoia ireki zen egunean, maiatzaren 1ean atera zuen 4 kilo eta erdiko izokin basatia Berrizko arrantzaleak.

Txapelketa bikaina jokatuta ondotik, Untoria errioxarrarekin batera lortu du azkenean eskuz binakako txapela janztea aurrelari leitzarrak. Zazpian utzi zituzten Berasaluze II eta Zubieta.

Leitzako bertsolariak irabazi du Nafarroako Eskolarteko txapelketa, 14 eta 18 urte artekoetan. Azpitxapeldun izan zen Maddalen Lopez le-sakarrarekin batera Euskal Herrikoan ariko da.

Atzera begira → 2005-V-19 / TTIPI-TTAPA 398 zk.



Herri ttikietan oraindik bizirik mantentzen den auzolanaz

«Herri ttikietan oraindik bizirik dago auzolanaren ohitura zaharra» izenburupean herritarrek herriarendako norbere borondatez egindako lanaz erreportajea egin zuen Ttipi-Ttapa duela hamar urte. Herritarren borondateak diru falta gainditzeko duela nabarmendu ondotik, Juan Mari Aleman Amaiurko alkateak zioenez, bi arlo elkartzen dituen auzolana arrazaberrizkoa da, «alde batetik lan batzuk egin ahal izateko, bertzenaz ez baita posible, dirurik ez dagoelako. Bertze aldetik, herri giroa mantentzeko ere baliagarria iruditzen zait. Ez da lana bakarrik, herritarrek elkartzeko eta herriaren alde egiteko gauza polite da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellechea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdi Aklarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leizta	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZZENASGOA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Atzeritarrak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Ez dakit konturatu ote zareten, zenbait hedabide eta komunikabidetan, konparaziora, EITBn, estatistika datu batzuk ematen dituztenean Euskal Herriari buruz, batez ere Eguberri, Aste Santu eta udako oporren gainean aritzen direnean, aipatzen dituztenean bisitarien kopuruak, honako esaldiak erabili ohi dituzte, esate baterako, «bisitari gehienak madrildarrak eta kataluniarrak izan dira. Gero, atzeritik, gehien etorri direnak ingelesak, txinatarrak eta frantsesak izan dira». Honela ikusita eta entzunda, ematen du atzeritarrak bakarrik direla Espainiako Estatukoak ez direnak, eta suposatu beharko dugu, beste horrenbeste gertatzen dela Frantziako Estatukoekin ere. Orduan, esaldi horiekin zer esan nahi digute, adibidez, Galiziakoak, Andaluziakoak, Extremadurakoak, Landetakoak, Bretainiakoak, Normandia Beherekoak eta Pikardiakoak Euskal Herrikoak direla, alegia, ez direla atzeritarrak, edo, behintzat, ez direla argentinarrek, mexikarrak, kanadarrak, japoniarrak edota senegaldarrak bezain atzeritarrak? Hau da, pentsarazi nahi al digute lehenengoak ez direla euskaldunontzat erabat atzeritarrak eta bigarrenak, ordea, bai?

Nik dakidanez, historian zehar, Euskal Herriko pertsonen deitu zaie euskal herritarrek eta atzerrikoei, hots, Euskal Herrian ez jaiotakoei, atzeritarrak. Gero, jakina, badakigu norberak, nahi baldin badu eta, batez ere, uzten baldin badio, aldatu ahal duela bere nazionalitatea. Baina, Euskal Herrian zer arazo dugu? Bada, denok dakigun bezala, bi Estatuk (Frantzia eta Espainia) gaituztela konkistatuak, kolonizatuak eta menperatuak; horixe da gure tragedia latza hitz gutxitan esanda. Noski, espainiarrak edota frantsesak direnek edo sentitzen direnek, ez digute holakorik sekula santan onartuko, baina euskal herritarrek garenok eta bertan bizi izateagatik hala sentitzen direnek, badakigu eskubidea dugula eta dute la aldarrikatzeko gure euskal herritartasuna, nahiz eta batzuek ez ontzat eman arrazoi politikoengatik, eta batik bat, indarraren arrazoiengatik.

Hortaz, hau guztia argi eta garbi utzi ondoren, ez dakit zer mesede egin nahi diguten euskal hedabide eta komunikabide batzuek, bi kontzeptuak nahasten dituztenean, alegia, esaterako, madrildarrak edota paristarrek atzeritartzat ez jotzen, eta bai, ordea, hegoafrikarrak eta suediarrek.

Euskal Herriko hedabide eta komunikabideek argi eta garbi eduki behar dituzte kontzeptu hauek, batez ere euskaldunak, abertzaleak eta independentzia zaleak baldin badira, jende arrunta gehiago ez nahasteko eta ideiak argi eta garbi izan ditzagun.

«Historian zehar, Euskal Herriko pertsonen deitu zaie euskal herritarrek eta atzerrikoei, hots, Euskal Herrian ez jaiotakoei, atzeritarrak»

Buzker pertola

Mikel TABERNA «KAPI»

Badakizue zeri erraten diogun buzker pertola? Buzkerra (bertze batzuek uzkerra edo puzkerra) bezalako gauza natural bat zer den ez naiz hemen esplikatzeko hasiko. Pertola zer den jakiteko, ordea, arrantzale munduaren berri zerba it izan behar; arrainak harrapatzeko sare klase baten izena da, deskuidatzen direnak preso hartzeko arte bat. Hortik aterako duzue gizasemeek eta emakumezkoek azpiko arropetako zeini deitzen diogun buzker pertola paraje hauetan.

Izena hala du, baina hori izateko ez du sobera balio: «harrapazak-harrapazan» erranagatik, denak eskapatzen zaizkio. Ez dute oraindik asmatu halakoak geldiaraziko dituen galtzontzillo-galtxoinik edo kulero-kulotik.

Orain, Hegoaldean hauteskunde sasoia baitugu, gogoratu zait alderdi politikoak ere bere pertola zabalik dutela gure botoa biltzeko prest, boto kuxta boto pertola dela. Eta, gisa berean, pentsatu dut gure botoa emateko manerak baduela antzik buzker egitearekin.

Botoa emateko tenorean euren aukera agerian erakusten dutenek aditzeko moduko buzkerra egiten dute, eta espantu handia egiten dutenek trumoiaren parekoa. Aitzinetik aisa kontatuko da horiena. Ordea, inork espero gabe ustekabea ematen duen botoa buzker isila da, putza erraten dioguna; inguruko jendea gehiago nerbiosten du horrek, nahasgarriagoa izaten da jeneralean.

Batzuk lau urtez tri-pako minak egoten gara, botoa emateko desiota, baina bertze batzuek ez dute deus botatzen, eta lasai ederrean bizi dira, sano-sano. Gero gerokoak.

Bistan da, aurtengo maiatzean dena ez da lore usaina izanen. Bakoitzari geurek ez digu nardarik ematen, baina bertzeenak aparte nahiago. Botoekin ere halatsu, gurea nagusi bada, kontent, baina bertzela, a ze sufrikarioa batzuetan»

«Bistan da, maiatzean ez da dena lore usaina izanen. Bakoitzari geurek ez digu nardarik ematen, baina bertzeenak aparte nahiago. Botoekin ere halatsu, gurea nagusi bada, kontent, baina bertzela, a ze sufrikarioa batzuetan»

Bertzeenak aparte nahiago. Botoekin ere halatsu, gurea nagusi bada, kontent, baina bertzela, a ze sufrikarioa batzuetan.

Iruñeko Parlamentuan, konparazio batera, hameka urtez perfume klase bat izan dugu gailen, bertzelakoak usaintzeko aukerarik apenas utzi duena. Hainbertze denbora egon baita hor, bertzeak zanpatzen, iduritzen zait usteltzen ere hasia dela. Ez litzateke txarra aurtan bertze aroma batzuk sartzea, leiho-ateak zabalduz bertako airea berrituko balitz bezala. Agian ere hala izanen da. Nik badut esperantza.

Irakurleak mintzo

Esker onak

Juanjo INDAKOETXEA
Ireber-en gurasoak
(Goizueta)

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu herriko (Goizueta) suhiltzaile bolondresei, lehengo larunbatean (apirilak 25) eskaini eta emandako laguntzagatik.

Eskerrak bereziki, Gorgori eta Txamo-ri, momentu zail horretan hor egoteagatik eta falta genuena bilatzen saiatzeagatik, onik aurkitu genuen arte.

Eraberean, eskerrak eman nahi dizkizuegu bidean abiatu eta, zorionez, bueltan herrira etorri behar izan zenuen guztioi.

Larrialdietako langileei ere bai. Eta (behin-goz) polizia foralari.

Bihotz-bihotzez eskerrik asko denei.

Mila esker guztioi!

Isabel PARDO (Aspaceko
Uxane Zentruko zuzendaria)

Gutun honen bidez eskerrak eman nahi dizkiet 1976-77az geroztik ezintasunen bat duten pertsonen zaintza babestu eta beraiei zuzendutako zerbitzuak lortzeko lanean aritu diren pertsona eta erakunde guztiei.

Bortzirietan harro egon gaitezke zailtasunak dituzten pertsonen urteetan zehar arreta eskaintzeko egin den lanagatik.

1976 -77 urteetan, hasitako bidea da. Eskualdean beren seme-alaben arretarako zerbitzurik ez zutenez, Donostia edo Iruñeara joan beharra izaten zuten familia aunitzek. Egoera horri irtenbidea emateko Gipuzkoako Aspacen lan egiten zuten mediku batekin biltzen hasi ziren. Eskualde honetako beharrak zeintzuk ziren identifikatzeko azterketa bat egin zuten lehenik: Bortzirietako etxe eta baserrietara bisitak egin zituzten boluntarioek, familiei elkarrizketak egin zizkieten eta premiak agerian geratu ziren...Kontuan izan behar da garai haietan errealitatea



Bota bertsoa

Iñigo SAGASTIBELTZA • Doinua: Misiolari baten moduan

Festarik festa

Udaberria iritsi orduko bada soinu ta zarata herrietako pestak datoz ta argisoiñu eta traka fandango eta arin-arina reggeton eta batxata bazter guztiak alaitu asmoz eritmorik ezta falta festazaleak garenentzako oraintxe dator aldapa!

Iruritatik hasi ginen ta San Juanetara gero San Pedro, Fermin ta Santiagotan ibiliko gara bero San Tiburtzio ospatu nahi dut ahal bada egunero festarik festa giro alaiari poz-pozik ta ero-ero zuk ere ongi pasako duzu gukin etorri ezkerro.

bestelakoa zela: ezintasunak zituzten haurrak etxean egon ohi ziren, itzalean, kalera irteten gabe.

Azterketa hau egiteaz arduratu ziren guraso eta medikuek Bidasoko Zentro Berezia irekitzea erabaki zuten gero. Berako udalak Zia auzoko Uxane eskola eskaini zigun, baina ez zen aukera egokia. Berako eskolatik bi kilometrorra dago gune hori eta gizartea kontzientziatu eta arazoa begi bistan jarri nahi bagenuen herrigunetik gertuago zegoen lokala lortu behar genuen. Eta lortu genuen, udalak leku aldaketa onartu zuen. Geroztik metro guxti batzuk baino ez gara mugitu, Legia karrikako 26. zenbakian izan dugu urteetan egoitza

eta orain 28. zenbakian gaude. Berako erdiguneari, beharrezko zerbitzu guztiak eskura ditugu bertan.

Egoitza hori lortzea izan zen Aspacek Bortzirietan egin duen bigarren lehenengo pausoa. Gabezia gutxi batzuk kenduta, pertsona hauen premiak asetzea lortu da urtez urte osatutako ibilbidean. Uxane zentroa, Maddi etxebizitza funtzionala eta Lesakako enplegu-zentro berezia dituzte eskura eta baita aldizkako fisioterapia zerbitzuak ere.

Nire lan bizitza, proiektu honen sorreran boluntario gisara abiatu nuen eta proiektu honi lotuta hartuko dut erretiroa. Baina Aspaceren bidea ez denez hemen bukatzen, osatzen joan

garen ibilbide hori sendotu eta zabaltzera animatu nahi ditut lankideak.

Eskerrak emateko ere probestu nahi dut tarteak. Hasteko nagusiei askatasunez lan egiteko aukera eman didatelako. Lankideak ere gogoan eduki nahiko nituzke, gehienbat Uxane egoitzakoak, osatu dugun lan talde bikainagatik. Ziur nago lanean gogotsu segiko dutela, ilusioa eta lanerako grina gainezka dute eta. Zerbitzua baliatzen dutenen senitartekoei ere eskerrak: aita, ama, anai-arreba eta gainerakoei. Eta bereziki mila esker hainbeste maitetudan nire hogeitau urtarrei, hemen izango nauzue behar duzuenarako.

Besarkada bat.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**



6 SARRERA BIKOITZ ZOZKETATUKO DITUGU urtean zehar

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA
Antioi 11, 31770 LESAKA
Telf: 948 637 400







Bagoaz, baguzi, bagazi
ttipi-ttapa haziz!

MEKONA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Onura fiskala partikularrentzat egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 eurotan), eta %40 kopuru haundiagoko donazioetan.

2015EKO
ERRENTA AITORPENEAN
BERRESKURATUKO DITUZU



Deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **bagoaz@ttipi.eus** helbidera

Prentsatik bildutakoak



«Aktore bezala ez dut proiekturik esku artean, baina harakidegian burubelarri nabil. Produktora txiki bat ere badut eta nere proiektuak egiteko ilusioa eta gogoia». «Inoiz ez dut izan harri jasotzera dedikatzeko tentaziorik. Zerbait egin dut, baina beste modu batera. Aitaren museoa bixitak eskaintzen hasi nintzen eta erakustaldiren bat egin nuen»

Xabier PERURENA
Leitzako harakina
D.NOTICIAS 2015.05.02

«Ebakuntza honen ondotik, aldakan protesia jarri didate, berriz ere harri jasotzen aritzea ezinezkoa izango dela iruditzen zait. Denek esaten dute harriek eraman nautela kirofanora, baina jende asko operatu dute eta %99,9ak ez du inoiz harririk jaso. Gertatzen diren gauzak dira». «Orain, telebista utzi dudala, aitona izaten ikasiko dut».

Iñaki PERURENA
Leitzako aktorea
D.NOTICIAS 2015.05.02

11 galdera labur

Nor da Izar Alguero?

Aresoko 19 urteko abenturazale txiki bat naiz. Gizarte antropologia ikasten ari naiz Donostian.

Zein afizio dituzu?

Irakurtzea, mendira joatea, antzerkia, dantzatzea... afizio asko eta denbora gutxi!

Asteburuetan gustuko plan bat?

Herri ezezagun batetara joatea, ezagutzea eta bertan parranda egitea.

Aresoko gustuko txoko bat?

Ulizar mendia.

Bidaiatzea gustuko duzu?

Bai, oso. Mundu osoari emango nioke bira! Bat esatearren, Zelanda Berria.

Oholtza gainean edo kamera aurrean sentitzen zara gustorago?

Hain desberdina da... oholtza gainean harrotu egiten naiz, kamara atzean ez. Baina ezin dut aukeratu, bitako bat aukeratzeko lan asko egin beharko nuke bakoitzean! oraingoz ez da kasua.

Zirkoaren munduan ere egin duzu saiakera.

Askok gustatzen zait mundu hori ere eta modalitate desberdinak probatu ditut, afizioagatik noski, besterik gabe.

Antzeztu nahiko zenukeen paper bat?

Sorginaren papera gustora egingo nuke!

Nondik datorkizu antzerkirako afizioa?

Txiki txikitatik ikaragarri gustatu zait farandularen mundua... eta moxorrotzea! niretzat inauteriak edozein egunetan izan zitezkeen.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ikasketak amaitzearekin batera Euskal Herritik kanpo ikusten naiz, sosa batzuen truke lan egiten eta bidaiatzen.

Amets bat?

Hizkuntza asko jakitea eta hauekin mingaina dantzan jartzeko aukera izatea.



Izar ALGUERO → Aresoko gaztea

KULTURA

BERTSOLARITZA → MAIATZAREN 24AN

Nafarroako Bertso Eskolen Eguna Lesakan eginen dute

Ehun bertso ikasle baino gehiago espero dituzte egun osoan eginen diren ekitaldietan

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Bertsozale Elkartek, Nafarroako Bertso Eskolen Eguna antolatu du. Topaketa maiatzaren 24an, igandearekin izanen da, goizeko 11:30-

ean hasita Lesakan. Hain zuzen, Nafarroa oso-ko bertso eskoletatik espero diren ehun ikasle baino gehiagori ongi etorria eginen zaie 11:30ean. Eguerdian bertso saioa eskainiko dute gaztetxoek eta 13:15ean bertso paper lehiaketako sari banaketa eginen da. Gero bazkaria izanen dute eta bazkal ondotik jolas libre. 15:15ean bertso-ginkana eginen dute eta 17:00etan itzulera autobusa hartu beharko dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela bi urte Donezteben bildu ziren bertso eskolak.



UTZITAKO ARGAZKIA

14 eta 18 urte arteko bertso paper lehiaketan parte hartu zutenak. Txapela eskuetan duela, Joanes Illarregi leitzarria ageri da.

14 ETA 18 URTE ARTEKOAK

Joanes Illarregi leitzarria nagusitu da Nafarroako Eskolarteko Bertsolari txapelketan

Azpitxapeldun izan zen Maddalen Lopez lesakarrarekin arituko da Euskal Herrikoan

Joanes Illarregi (Leitza), Maddalen Lopez (Lesaka), Ekhiñe Zapiain (Bera), Iratxe Muxika (Lesaka), Idoia Granizo (Altsasu) eta Ekain Alegre (Altsasu).

Saioko lehen fasea zortzi bertso-lariek egin ondotik, Maddalen Lopez, Xabat Illarregi, Joanes Illarregi eta Manex Mailharinek jokatu zuten bigarren fasea. Azkenean Joanesek jantzi zuen Nafarroako bertsolari gazteen txapela eta Maddalen Lopez lesakarra berriz, bigarren sailkatu zen. Biek ordezkatzuko dute beraz Nafarroa, ekainaren 27an Orion jokatzeko den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan.

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 24an Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak jokatzeko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 29. edizioan, Joanes Illarregi leitzarria izan da lehen aldiz txapelduna.

Guztira zortzi bertsolari gaztek hartu zuten parte: Manex Mailharin (Berriozar), Xabat Illarregi (Leitza),

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

BAR Botxo
OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

ERANDONKA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
jose luis & coro
Tfno/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 • BERA

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA • T. 637 40 86 40 • 31780 BERA • andonimatzako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko internet
- Digital + banatzaile ofiziala

KIROLA → MAIATZAREN 17AN

Igande honetan eginen da XII. Mendi Itzulia

Aurten ibilbidea
Intzola eta
lesolatik barna
pasako da

TTIPI-TTAPA

Bi urtetik behin egiten den hitzordu haundia atejoka dugu, igande honetan, maiatzak 17, eginen baita Mendi Itzulia. Aurtengoa hamabigarren edizioa izanen da eta mendizaleek 28 kilometro eta 1.750 metroko desnibela duen itzulia egin beharko dute.

Azken edizioetan bezala, alderantzizko noranzkoan eginen da. Mendizaleak Agerratik aterako dira eta Zigorriagarako bidea hartuko dute. Gero, Manttaletik pasata Ibardinera joanen dira eta Erentzunera igotakoan Intzolarajautsiko dira. Gorako bidea hartuko dute berriz ere, lesolatik pasatzeko. Hau izanen da aurtengo itzuliaren nobedadea, ibilbidea pixka bat aldatuta, Intzola eta lesolatik pasa

beharko baitute mendizaleek. Ibilbideko punturik gailurrena zapaldu beharko dute gero mendizaleek: Larun. Hemen-dik Lizuniagara jautsiko dira eta Larretaginatik pasatakoan hasitako tokian bukatuko dute itzulia, Agerran.

Izen-ematea egun berean 06:00etatik 07:50 bitarte egin daiteke edo bertzela ortziralara baino lehen www.mendizmendi.com web orrian. Mendi itzulia, berriz, 07:00etatik 08:00etara aterako da. Parte hartzeko federatuek 8 euro eta federatu gabeek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Gure Txokoako batzarra

Azken urte honetako ekitaldiak eta kontuak azaltzeko eta zuzendaritza batzorde berrikoen aurkezpena egiteko batzarra eginen du Gure Txokoa Elkartek larunbatean, maiatzak 16, 20:00etan lamotenean. Bazkideei joateko deia egin diete.



Ba al zenekien

Udaleko web orriak eus.domeinua izatera pasatu direla. Abudo, posta elektronikoen ere bera.eus izanen dute helbidean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aralarko San Migelen bixita

Egia da ez duela garai bateko debozioa pizten, baina aurten ere herriz herriko bixita egin du Aralarko San Migelen irudiak. Berara ere etorri zen apirilaren 26an eta ohiturarekin segiz fededunek ongi etorria egin, bere irudiari musu eman eta gero meza entzuteko aukera izan zuten Altzateko elizan.

MAIATZAREN 14, 15, 21 ETA 22AN

Herriko eta kanpoko aktore gazteak taulara igoko dira Mugaz Gain Antzerki Jaialdian

TTIPI-TTAPA

Orteguren honetan hasita Mugaz Gain antzerki jardunaldiak eginen dituzte Kultur Etxean.

Maiatzaren 14an, ortzeguna, 11:45ean *Bideoz Blai* eskainiko dute Toki Ona Institutuko 2. DBHko eta Batxilergoko 1. mailako ikasleek. Sarrera euro bat ordaindu beharko da.

Maiatzaren 15ean, ortziralara, 11:00etan *Aupa Etxebeste* antzezlan eskainiko dute Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskolak. Ondotik, *Dantzaz Blai* dantza ikuskizuna eginen dute eskola berrekoek. Eta 13:00etan antzerki eta dantza ikuskizun berdina eskainiko dute.

Maiatzaren 21ean, ortzeguna, 10:00etan *Liburu magikoaren istorioa* ikuskizuna eskainiko dute Ricardo Barojako bigarren mailakoek eta 12:00etan *Behin batean, Bera*

herrian... antzezlan eginen dute Labiaga Ikastolako Haur Hezkuntza-koek. Bi saioetarako euro bana ordaindu beharko da. Egund berean, 18:00etan, ikuskizun bera eskainiko dute Ricardo Barojakoek eta denentzako irekia izanen da, bi euroko sarrera ordainduta.

Maiatzaren 22an, ortziralara, 10:00etan Jesusen Bihotza ikastetxe 5. eta 6. mailakoek *Beldurra* antzezlan eskainiko dute eta 12:00etan Labiaga Ikastolako 5. mailakoek *Trena galdu eta zenbat gauza* antzezlan. Bi antzerki hauek arratsaldean ere eskainiko dituzte, 18:00etan hasita, denentzako irekiak, bi euro ordainduta.

Aipatu, maiatzaren 21ean eta 22an arratsaldean eskainiko diren antzezlanak ikusteko sarrerak 17:00etatik aitzinera salduko dituztela Kultur Etxean, edukiera bete arte.

MARITX

Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzalea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

JAKONE-GOZOTECA

948 630 786
Alzate, 19 • BERA

LESAKA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 23AN

Bidasoaldeko bigarren Arte eta Artisautzaren Azoka prest du Bihotzkadak

‘Gure artea, gure artean’ erakusketa irekiko da Harriondoan, bertze hainbat ekitaldiren artean

Aitor AROTZENA

Gure artea gure artean goiburupean Bidasoa aldeko arte eta artisautzaren bigarren azoka egingen da maiatzaren 23an Lesakan, Bihotzkada Kolektiboko antolatuta.

Larunbat goizeko 10etan azokaren aurkezpena egingen dute plazan, malabarista, txalaparta eta txistulariekin eta kalejira Harriondora. Gure artea, gure artean erakusketaren inaugurazioa kontzertu akustiko batekin egingen dute. 11:00etan tailerrak martxan jarriko dira plazan eta bidasotarren murla egingen dute Alhondigan.

12:00etan Abesbatza karrikaz karrika ibiliko da. 12:30ean kontzertu akustikoa eskainiko du Pitxik eta malabaristak ariko dira Eskol Ttikin eta bazkaria izanen da Arranon. 16:00etan ipuin eta olerkien irakurketa egingen dute plazan. 17:00etan Bortzirietako bertso eskolak Bertsolari Ibiltariak emanaldia eskainiko du. 18:30ean kontzertu akustikoa eskainiko dute Pelax&The Cowboy's Orkestrak eta Phisis Vs Nomostal-deek.

ZOKKETA

20:00etan, azokari bukaera emateko, Bihotzkadaren zokketa erraldoia egingen da eta kalejira Elutxa txaragarekin. 21:00etan rock kontzertua izanen da Apurtu, Barniz porlanariz eta Lox Txikos del Albal taldeekin. Aipatzekoa da zokketako zarea ikusgai dagoela Mendegia harategian. Egun osoan literatura eta musikaren txokoa ere jarriko dute Oninarten.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Bederatzi bikotek parte hartu zuten maiatzaren 1eko ibilaldi neurtuan eta Margarita Zubiri eta Beatriz Sagaseta suertatu ziren irabazle. Kokoriko, eskuinetik hasita lehena, Joxepa Arakues presidente berria.

BERRIKUNTZA ETA GAZTETZEA ZUZENDARITZA BATZORDEAN

Joxepa Arakues da San Fermin erretiratu elkarteke lehen emakume presidentea

A. AROTZENA

San Fermin erretiratu elkarteke zuzendaritza batzordean aldaketak izan dira. Azkeneko 18 urte baino gehiagotan presidente izan den Carmelo Etxarteren lekukotza hartu du Joxepa Arakuesek. Beraz, lehenbiziko emakume presidentea izanen da elkarteke.

Lehendakari berriarekin batera, Kontxi Ordoki presidente ordea, Kontxi Landa idazkaria, Manuel Angel Lain diruzaina eta Nekane Irujeta bokala sartu dira batzordean. Lehendik segitzen duten Josefina Andueza, Jose Manuel Curto eta Jose Luis Porturekin ariko dira lanean. Carmelo Etxarterekin batera, Ramon Etxenike idazkariak, Agustin Arriola diruzainak eta Patxi Zapirainek utzi dute batzordea, kasik 19 urte eman baitute eta jende berria sartzeko premia zela uste baitzuten.

Bertze inor ez zela aurkeztuko ikusirik eta horrek elkarteke desegi-

tea eragin zezakeela ikusita, talde- txo bat aurkeztu zen lanerako prest. Lehen helburua elkarteke aitzinera egitea bertzerik ez da, «bertze asmorik gabe, gauzak nahiko antolatuak zeuden 2015erako eta. Gauza berri askorik ere ezin egin, dugun bazkide kopuruarekin, zaila izanen zen adibidez aste bateko irtenaldi- txo bat egitea, baina saiatuko gara. Nahiz autobusa betea ez izan, mikrobis bat edo jarrita, agian...».

Bitxikeri moduan, 411 bazkide- en artean lanean ari den bakarra da Joxepa Arakues «eta Carmelo Etxarte presidente sartu zenean, bere egu- nean, gauza bera gertatu omen zen». Gainera, 58 urte bete berriekin, bazki- de gazteena ere bada eta lehen al- diz emakumea presidente karguan. «Egia da orain emakume aunitzek osatzen dugula batzordea, gehien- goa gara, agian gizonak alferxeago dabilzalako?» galdetzen du irrika Joxepak.

- Lentzeria
 - Bainujantziak
 - Mertzzeria
 - Jantzi tipikoak
 - Penen blusak
 ...
kattagorria
 lentzeria mertzzeria
 Beheko plaza 10 31770 Lesaka
 T. 948 627 514

sarobe
 gozotegia okindegia
 p^o de eztegarra 25 bajo 1.948 63 08 99
 31780 bera (navarra) **www.sarobe.net**

IRU BIDE
 Erretegia · Asador
 Biurraña, 3 Lesaka
 Tel: 948 637 127

PPSOE,
 Euskal
 Telebista
 digitala
Nafarroan
 orain!
 Berria erosi taldea

ETXALAR

GIZARTEA → MAIATZAREN 13RAKO AURKEZTU

Bi langile behar dira igerilekuan lan egiteko

Irune eta Itsaso

Udal igerilekuen mantenu, garbiketa eta funtzionamendu lanak esleitzeko deialdia argitaratu da. Deialdian parte hartzeko eskabideak maiatzaren 13ko 14:00ak baino lehenago aurkeztu behar dira udal idazkaritzan.

Bertze aldetik, Udalak langabezia dauden bi lagun kontratatu behar ditu. Kontratatu beharreko pertsonak lan gabe eta lan eskatzaile gisa inskribaturik egon beharko dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren menpeko Enplegu Agentziaren batean. Interesaturik dagoenak, bere datuak eman ditzake Herriko Etxeko bulegoan maiatzaren 12ko 14:00ak arte.

Herriko ostatua

Etxalarko herriko ostatua errentan emateko lehiaketa publikoa berriz ere ireki da. Eskaintzak Etxalarko udalaren idazkaritzan aurkeztu behar dira maiatza-

tzaren 20ko eguerdiko 12:00ak baino lehen.

Herriko gazteen arteko pilota txapelketa

Maiatzaren 23an hasiko da gazteek antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa. 11 bikote arituko dira abuztura arte partidak jokatzeko eta finala abuztuaren 17an izanen da.

Etxalar.eus

Etxalarko udalak hemendik aitzinera, .eus



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN ETA MATTIN SANZBERRO

Etxalarko II. Mendi itzulia jendetsua izan da

Maiatzaren 2an egin zen Etxalarko II. Mendi itzulia eta eguraldi ederra lagun, Euskal Herri osoko 530 lagun inguruk parte hartu zuten. Lerro hauen bidez AItxatak eskerrak eman nahi dizkie antolakuntzan lagundu zuten herritar guztiei eta bereziki gerturatu ziren parte hartzaile guztiei ekitaldiari horrelako harrera bikaina egiteagatik.

domeinua erabiliko du herriko web orrirako: www.etxalar.eus. Hala ere, denbora batez .org domeinuak martxan segituko du egoera berria normalizatu arte.

Kalean gantxiloa egiteko eguna

Pasa den urtean bezala, aurten ere Etxalarko Gaztik taldeak kalean gantxiloa egiteko eguna antolatu du maiatza-

tzaren 29an, 18:00etan Kultur etxe azpian. Herritar guztiak gonbidatuta daude bertaratu eta orratzak astintzera.



ARGAZKIA: ARANTXA BIZENTE

San Migelen etorrera

Apirilaren 25ean Aralarako San Miguelen irudiak urteroko bisita egin zuen herrira.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Lurritziederra auzoko bestak

Maiatzaren 3an ospatu ziren Lurritziederra auzoko bestak. Urtero bezala Agerrebereko bordan egin zuten bazkaria eta 50 lagun inguru elkartu ziren. Bazkalondoa Gregorio akordeoilariak alaitu zuen eta giro ederrean akautu zuten eguna.



“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -



John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683
johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com



XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA



- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com



Zalain

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 23AN

Sutagar taldea izanen da Udaberri On jaialdiko izarra

Kalera taldeak ere joko du eta txaranga ibiliko da egun osoan

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 23an ospatuko den Udaberri On jaialdiaren baitan kontzertuak izanen dira Igantziko frontoian, herriko gazteek antolatuta.

ta. Eguerdian eta arratsaldean txaranga ere ibiliko da harat-honat-ean.

Kontzertuei dagokienez, Sutagar talde bateranoa izanen da talde izarra. 22:30ean hasiko da jotzen, eta ondotik Kalera taldea arituko da. Sarrera 10 euro gostako da, eta bestabusa ere ibiliko da herriz herri.

NAFARROAKO TXAPELKETA ERABAKIKO DA

V. Xabi Telletxea BTT jeitsiera maiatzaren 16an eginen da

Igantziko Biltoki elkarteak Xabi Telletxea zenaren omenez bosgarren urtez antolatutako BTT jeitsiera maiatzaren 16an eginen da. Txapelketa larunbat arratsaldeko 3etan hasiko da lehenengo jautsierarekin. Entrenamenduak, berriz, goizeko 9etan hasi eta 13:00ak arte izanen dira.

Nafarroako Txapelketa erabakiko da Igantziko proban eta aldi berean Euskadiko Oponerako puntuagarria izanen da. Hortaz, parte hartzeko nahitanahiezkoa da federatuta egotea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gure Esku Dago ekimenerako oihala josten

Bortziak Josten ekimenerako oihalak prestatzen aritu ziren maiatzaren 2an. Jende morderka bildu zen eta oihalak prest utzi zituzten, lehenbiziko Bortzietako bertze herrietakoekin josteko, eta gero ekainaren 21ean Iruñean hauteskontzi erraldoira eramateko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ogia egiten ikasten Udaberriko Bestetan

Udaberriko Bestak ederki joan ziren. Antolatutako ekitaldi guztietan jende de-xente ibili zen. Azpimarratzekoa ogia egiten ikasteko tailerrean, Jon Azkarraga Etxalarko okinarekin parte hartu zuen jende multzoa.

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

BORTZIRI
UNSIÕN ANAIK
Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

MENDIA → EKAITZA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Goizuetara mendi ateraldia maiatzaren 23an egingen da

Txartelak maiatzaren 17ra bitarte egonen dira salgai

Nerea ALTZURI

Herriko mendi itzulia ez den urtean, Goizuetako ateraldia antolatzen du Ekaitza Elkartek. Aspaldiko ohitura honi eutsiz, goizuetarrek egingako bisita itzuliko die hiritarrek eta aurten ere hitzordua paratua da. Maiatzaren 23an, larunbatarekin, Goizuetara oinez joanen dira, 07:30ean plazatik abiatuta. Hango elkartean bazkaldu eta ilunabarrean autobusean etxera bueltatuko dira. Egun pasa polita izaten da, batez ere eguraldiak lagunduz gero!

Ateraldi honetan parte hartu nahi dutenek herriko ostatuetan erosi beharko dituzte txartelak. 20 eurotan daude eta maiatzaren 17ra arte egonen dira salgai.

Eskolako berriak

Ikasturtearen azken txanpan sartuta, hilabete honetan kanpaldiak dituzte eskolako lagunek.

Bigarren ziklokokoak Orion izan dira aste honetan; hirugarren ziklokokoak Zuhatzan bi gau pasako dituzte, maiatzaren 25etik 27ra; eta lehenbiziko zikloko ikasleak hilaren 26 eta 27an Beireko aterpetxean izanen dira.

Bertetik, maiatzaren 18tik 22rako astean, bideo konferentzia bidez Uxueko eskolakoekin bi proiektu partekatuko dituzte. 4. eta 5. mailako ikasleek Asiako liztorraren inguruan egindako lan bat aurkeztuko dute, eta Uxueko neska-mutikoei eskolako baratzean duten armiarma ti grearen lan baten berri emanen diete. Herriko eskolak harreman berezia du Uxueko eskolarekin. Iaz, ikasturte akaberako ateraldia harat egin zuten eta eurek ere etorriak dira Arantzara.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eliza garbitzeko ateraldia

Arantza eta Igantziko parrokiei eliza garbitzeko sari gisa merendu-afaria eta irteera antolatzen dituzte. Aurten, apirilaren 30ean bi herrietako 53 lagunek parte hartu zuten Faltzesera antolaturiko ateraldian. Lehenbiziko geldialdia Zahori hipikan egin zuten eta ondotik, Iñurrieta bodegak bisitatu zituzten. Bazkaldutakoan, arratsaldean Mirandako Marko Kontserbara joan ziren. Egunari akabaila emateko, Artaxonan itzulizka egin zuten. Gustura ibili zirela eta egun borobila atera zela erran digute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Irakurzaletasuna bulkatzen

Aitzinako alean aipatu bezala, apirilaren 23ko Liburuaren Egunaren harira, hainbat ekimen antolatu zituzten eskolan.

Gazte Asanblada laguntza eske

Arantza Rock jaialdiak sortzen duen gastua ez denez tikiak, Gazte Asanbladak laguntza eskatu du. Arantza Rock antolatzen laguntzeko kontu zenbakia ireki du Caixan, eta nahi duenak diruz laguntzeko aukera izanen du. Hau da zenbakia: ES56 2100 5382 39 2100097106.



URBEN ARKITEKTOS

ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA



ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK
ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK (ITE)

TELF. **688 88 77 77** estudio@urbanarquitectos.com

URBEN EASO 77 S.L ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7°. www.urbanarquitectos.com

BORTZIRIAK

GIZARTEA → EUSKARA BATZORDEETATIK

Euskararen aldeko konpromisoa eskatu zaie udal taldeei

Legealdi berrian ere euskararen gaia aintzat har dezaten

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 24an izanen diren udal hauteskundeetan atarian Bortzirietako euskara batzordeek lanketa berezia egin dute eskualdean hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko eta udal taldeekin, hastear den legealdi berrian ere euskararen gaia aintzat har dezaten proposatzeko.

Euskara batzordeen ordezkariak talde guztiei eskatu diete bilera, PP izan ezik, gerora jakin baitu Bortzirietan taldea aurkeztekoa zutela. Guztira, beraz, 5 udal talde edo alderdiei luzatu diete biltzeko gon-

bitea: eskualde mailan ordezkari izanzen duten EH Bilduri eta Geroa Bai, eta bertzetik 3 talde independenterri: Etxalarko Herri Taldeari eta Etxalar Bai, eta Berako Herriko taldeari.

5 alderdiotatik hiru rek eman dute bilera egiteko baietza: EH Bilduk, Etxalarko Herri Taldeak eta Berako Herriko taldeak. Apirilaren erdialdera bildu zen euskara batzordeen ordezkariak bat alderdi bakoitzarekin, euskararen aldeko konpromisoa har dezaten gomendatzeko, eta era berean, ados egonez gero konpromisoen akordioa sinatu dezaten eskatzeko.

Euskara batzordeetako ordezkariarekin bildutako 3 taldeetatik bik sinatu dute akordioa, oraingoan: EH Bilduk (es-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bidaziko azokaren lehen urteurrena ospatu dute

Bidazi elkarteko azokak (dendak) urte bat bete zuen apirilaren hasieran, eta gaur egun 120 bazkideek erabiltzen dute. Urteurrena ospatzeko, apirilaren 25ean irteera egin zuten eta bi ekoizle ezagutzeko aukera izan zuten: Anizko Jauregia gasnategia (argazkian) eta Lekarozko Larraldea sagardotegia.

kualde osoaren izenean) eta Etxalarko Herri Taldeak. Berako Herriko taldeak ez du oraindik sinatu, taldeko buruek testuan jasotzen denarekin adostasuna agertu badute ere.

Bortzirietako euskara batzordeek alderdi politikoei egiten dieten akordio proposamenak 5 puntu jasotzen ditu:

1. Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik, herritarren gehien-goak daki euskaraz. Hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititu da eta nagusiki euskaraz bizi gara. Gure herriak euskararen arnaguneak dira. Azken hamarkada hauetan normalizazio

prozesua abian dago, eta beharrezkoa da ondoko urteetan ere prozesu horri jarraipena ematea, eta ahal dela indartzea.

2. Udalerrri euskaldunak garrantzizkoak izan dira euskararen bizirapenerako, eta aparteko funtzioa joka dezakete hizkuntzaren normalizaziorako. Gure herritik ekarpen emankorra egin genezake bide horretan, baina horretarako, beharrezkoa da hainbat sentsibilitateko herritar eta eragileen arteko elkarlana.

3. Azken urteotan udal eta mankomunitate berruko euskararen erabileran aitzinera pausu nabarmenak eman dira, UE-

Maren bitartez abian diren erabilera planei esker. Plan horiek segida izan dezaten eta, horrez gain, herritar guztien hizkuntza eskubideak bete daitezten udal hautetsi guztiak euskal hiztunak izatea beharrezkoa da.

4. Administrazio publikoak eredu izan behar du euskarari dagokionean ere, eta hortaz, udalean euskaraz funtzionatuko dugu, abian diren erabilera planei segida emanez.

5. Bertze udalerri euskaldunekin elkarlanean arituko gara, gurea bezalako herriek behar duten babesa eta trataera berezia artikulatzeko.

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tlf: 948 625 472

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus

ZALDI
FERRATZAILEA

625 704 419

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 22TIK 24RA

Asteburu Kulturala indartsu dator

Igandearekin
Artisau Feria
eta gazta
lehiaketaren
zazpigarren
edizioa

Maidar PETRIRENA

Aurten ere egitarau ederra prestatu dute Asteburu Kulturalerako.

ORTZIRALA, MAIATZAK 22

- 16:30ean Txokolata-da plazan edo frontoi-an eguraldiaren arabera.
- 17:00etatik 20:00etara Jokulandia.
- 19:00etan Irriterapia sesioa Ulibeltzak elkartearen. Ondoren afari autogestionatua.
- 22:00etan Mus txapelketa Bustitz ostatuan.

LARUNBATA, MAIATZAK 23

- 08:30ean plazan elkartzea. Mendi ibilaldia oinez edo bizikletaz.
- 11:00etatik 13:00etara Jokulandia plazan edo frontoian eguraldiaren arabera.
- 14:00etan Bazkaria Ariztigain kanpinean (txartelak ostatueta salgai).
- 16:00etatik 20:00etara Jokulandia (tartean haurrentako berendua).
- Ilunabarrean triki-txaranga poteoa.

IGANDEA, MAIATZAK 24

- 10:00etatik 14:00etara artisau feria eta gazta txapelketa.
- 11:30ean herriko haurren dantza saioa.



ARGAZKIA: MAITE MENDIBIL

Artzain Amerikanoen besta ospatu dute maiatzaren 1ean

Amerikarrek beraien urteroko besta ospatu zuten maiatzaren 1ean. 1987. urtean hasi ziren besta ospatzen eta dagoeneko 29. urtea ospatzera ailegatu dira. Meza ondoren Ulibeltzak Elkartearen pintxoak eta beraien ohiturako edaria, hey bol-a izan zituzten. Ondotik Ariztigain kanpinean bazkaria. Urtero bezala bazkari eder bat, familia argazkia eta ondoren berendua ere egin zuten.

- 12:30ean Mendaur trikitixa-pandero eskolaren emanaldia.
- 16:30etik 19:30era artisau feria.
- 19:30ean gazta txapelketako sari banaketa eta zare baten zozketa.



Ba al zenekien

Herrera anaiek fin segitzen dutela mendi bizikleta probetan eta maiatzaren 3an Zangozan, biak hirugarren izan zirela, podiumera igoz.



ARGAZKIA: BIDAS IBARRA

Ulibeltzak mendi taldea Aizkorri

Ulibeltzak Mendi taldeak maiatzaren 1ean Anira joan nahi zuen baina eguraldiagatik azkenean Aizkorriara egin zuten irteera. Han ere eguraldi kaxkarra.



ARGAZKIA: JUAN ANTONIO IBARRA

Arkupeak elkartearekin Katalunian

Arkupeak Elkartekoek Katalunia aldera bidaiatu dute apirilaren 23tik 30era bitarte. Bertan hamalau sunbildarrek parte hartu dute. Izugarritzko eguraldia egin zien eta bidaiari hagitx ongi pasatu dute. Argazkia Besalun aterria da.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Mikel Aingeruaren irudia bisitari

Mikel Aingeruaren irudia Sunbillan izan zen apirilaren 26an. Argazkian ikusi daitekeen bezala eliz atarian egin behar izan zitzaion harrera, euria gogotik ari zuelako. Meza aurretik eriei urteroko bisita egin zien.

DONEZTEBE

KULTURA → MAIATZAREN 17AN

Nafarroako Folklore Eguna herrian ospatuko dute

Lau eremutan izanen dira ekitaldiak

Marga ERDOZAIN

Nafarroako Folklore Funtsak maiatzaren 17an ekitaldiz betetako eguna antolatu du Lau eremutan, karrika eta plazak hartuta, egun osoan zehar ekitaldi ezberdinak izanen dira.

Doneztebeko auro-roek herritarrak euren kantuekin esnatuta eta joaldunek lagunduta, hasierako ekitaldi ofiziala jantziko dute. Ondotik, herrian lau gune paratuko dituzte eta bertan musika bandak, dantza taldeak, txalapartak, joteroak, bertsolariak, abesbatzak baita erraldioen konpartsak ere ikusgai eta entzungai izanen dira. Egun osoan Nafarroako artisauen erakusketak izanen da. Txikiendako ere joko eremua jarriko da, adin guztien dako jendeari programa eskaintzeko. Akitzeko, Doneztebek le-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Anaitasuna eskubalo taldekoak Errekako ttikiei bixitan

Apirilaren 30ean, Malerreka bixitatu zuten Anaitasunako eskubalo jokalariek. Elgorriagako Bainuetxera bisita egin zuten eta kiroldegian izan ziren. Jokalariekin egoteko, argazkiak ateratzeko, sinadurak eskatzeko... aukera ezin hobe izan zuten Errekako ttikiek.

kukoa Erriberriko ordezkariak pasako die, heldu den urtean herri hartan folklore besta hau ospatuko baita.

Nafarroako Folklore Funtsak Nafarroako folklore adierazpen ezberdinen interes eta miresmena sustatzea du helburu nagusia, lau lan ildo bultzatuta: folkloreaken kontserba-

zioa, formakuntza, difusioa eta sustapena. Ekimen honekin herriz herri ospatuko den besta honek tokian tokiko

folklore aldaerak eza-gutarazi nahi du, ahalik eta biztanle gehienetara ailegaraziz.

Ba al zenekien

Ekainaren 6an Doneztebe Futbol taldea bere eguna prestatzen ari dela eta jubenilek igoe-ra fasea jokatzeko hasi direla. Eta ba al zenekien ekainaren 13rako Erreka bere eguna ere sukaldatzen ari dela.

FLASH

Musika Topaketak

Maiatzaren 13, 14 eta 15ean Mendaur institutuko ikasleek, Leitza eta Lekarozkoekin batera, parte hartuko dute aurtengo musika topaketetan. 13an hitzordua Doneztebeko frontoian izanen da, 14an, berriz Lekarozen eta 15ean Leitza. Ekimen honetan DBHko 1. eta 3. mailako ikasleek parte hartuko dute baita 4. mailako batzuk ere.

Konpostaz hitzaldiak

Konpostaren inguruan hitzaldiak maiatzaren 27 (12:00etan) eta 29an (19:00etan) Malerreka-ko Mankomunitateko egoitzan. Malerreka-ko biztanle guztiendako zuzenduak dira. Hitzaldietan konpostaren prozesua azalduko da gehienbat eta bakoitzak prozesuaren inguruan edo birziklapenaren inguruan izan ditzakeen zalantzak argituko dira. Erabiltzaile berriek nola konpostatu egiten dutenak parte hartzen ahal dute (ideiak freskatzeko eta berriei ekarpenak egiteko). Hitzaldien ondotik auzo nahiz etxe-ko konposta egiteko behar den materialak banatuko da.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BORDALARREA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

MALERREKA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 30EAN 4. EDIZIOA

Elgorriagan ospatuko dute Malerrekako laugarren Eguna

Heldu den urterako lekukoa lturenek hartuko du

Marga ERDOZAIN

Aurreko edizioetan egin zen bezala aurten ere programa anitza eta zabala prestatu dute, Malerrekako biztanleek bailarako sentimendua sustatzeko helburua ezarrita. Goizeko 10etan herrietako ordezkariak hasiera emanen diote egunari, bertan Elgorriagako Udalak aurreko omenaldia egingen du.

Goiz osoan zehar artisauek eta talogileak eliz atarian eta pisu azpiko patioan egon dira. 10:30etik 12:30era dantzari eta abesbatzaren emanaldia frontoian izanen dira. 12:30ean buru-handiak umeen gozamenerako; 13:00etan joaldunak eta "Malerrekako Leihotik Begira" lehiaketako lanen irakurketa eta sari banaketa; 14:00etan paella jatea frontoian Malerrekako Kantuek alaituta. Laxoa pilotari buruzko erakusketa ere ikusgai izanen da. Arratsaldeko egitarauan honako ekitaldi hauek burutuko di-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Elgorriagak Donezteberen lekukoa hartu du. Argazkian, dantzariak iazko ospakizunean.

ra: 16:00etan Muxikak, Malerrekako Mus Txapelketaren finala (Herriko ostatuan); 17:00etan umeendako jokoak eta txokolatada frontoian; ondorengo aitzakia apustua eta herri kirolak. 20:00etan zozketa eta mus txapelketaren sari banaketa; ondorengo, ekitaldi ofizialari bukaera emateko, Iturengo herriari lekukoa pasatzeko ekitaldia egingen da. 20:30etik aitzakia Oharkabe taldea-

ren emanaldia; 21:00etan Hilarionen afaria eta 22:30etik gaurdira Oharkabearen bigarren emanaldia. Gaurditik aitzakia DJ Endara-ren emanaldia. Herri afariarako txartelak Malerrekako Mankomunitatean eskuragarri. izanen dira edo 948451746 telefonoan. Egun horretako gastuei aurre egiteko hainbat sariren zozketa egingen da, dagoneko txartelak salgai daude.

MIGUEL ARREGIK ARMARRIA

Malerrekako Eguna aurten laugarren urte ospatuko da, Elgorriagaren aitzakia, lehenengo urteetan Zubietan, Eratsun eta Donezteben antolatuta baita. Besta hau sortu zenean egurrezko tailua handi bat egin zen eta urtero lekukoa hartzen duen herriaren armarrria Miguel Arregi zurginak ederki, bere artea erakutsiz, egurreratzan du.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2015 UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ITUREN

GIZARTEA → NAFARROAKOAK BOSGARREN ALDIZ ELKARTUKO DIRA MAIATZAREN 23AN

Landa eremuko eskolen jardunaldia herrian egingen dute

70 eskola ttitakako irakasleak elkartuko dira, beraien egunerokoa partekatu eta ekitaldi ezberdinak egingo dira

Arkaitz MINDEGIA

Malerrekako eskola ttitien lan taldeak antolatuta Nafarroako landa eremuko eskolen topagunea izanen da herria maiatzaren 23an. Topaketa hauen bosgarren edizioa da, Lizarran, Lesakan... ospatu izan dira orain artekoak. Bertan 70 eskola ttitakako irakasleak elkartuko dira, beraien egunerokoa partekatu eta egun guztian zehar ekitaldiak ere izanen dira. Goizeko 10etan elkartuko dira Pulunpa eskolan eta bertan ongi etorria egin ondotik tailerretan ba-



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

Markesina berria Aurtitzen

Aurtitzarrek marquesina berria estrenatu dute. Mindegia Zurgindegiak egin du hainbeste desio zuten aterpea.

natuko dira irakasleak. Gai desberdinak landuko dituzte: bikoteka irakurtzen, bertsolaritza emozio hezkuntzarekin lotua, proiektuak lana... Eguerdi aldera tailerren balorazioa egingo dute eta gero nahi duenak Iturengo herriko ostatuan bazkaltzeko aukera izanen du. Antolatzaileek aurreratu digutenez, sorpresa batzuk ere izanen dira. Besteak bes-

te, irakasle eta ikasleek herriko eskolaren egoera zein den azaldu eta eskola berria eskatzeko egin duten lipduba ikusteko aukera izanen da.

Urrezko aizkora txapelketa martxan

Hasi da bakarkako urrezko aizkora txapelketa eta herriko ordezkariak izanen da ber-

tan. Ander Erasun final laurdenetan aritu zen maiatzaren 2an Elgoibarren eta Larretxea, Mugertza eta Olasagastiren aurka aritu behar izan zuen finalerdietako txartela lortzeko. Lan ederra egin zuen eta aurrera egitea lortu, berrekin batera ariko da Larretxea ere. Dagoneko finalaurrekoetarako entrenatzen ariko da burubelarri.

FLASH

Bestetarako prestatzen

Nahiz eta oraindik uztaila urruti ikusi, bestak antolatzen hasiak dira. Maiatzaren 8an egin zen lehenengo bilera eta hasi besterik ez dira egin. Beraz, animatu eta azaldu, denen parte hartzea eskertuko da eta.

Hauteskundeak ate joka

Maiatzaren 24an egingen dira udal hauteskundeak, baina gurean ez da misterio askorik izan. Herrian talde bakarra aurkeztuenez EHBilduk segiko du udalean, baina taldekide berriekin. Maiatzaren 3an egin zuten taldearen eta programaren aurkezpena. Herrikoa erabakita dagoen arren, Nafarroako parlamentuko bozkak ere orduan emanen dira.

Ehuntze eguna

Apirilaren 25ean ospatu zen Malerrekako ehuntze eguna. Ituren hiru oihal eta Aurtitzen bi oihal saldu ziren. Herritarrek apainapain utzi zituzten oiha-lak, ekainaren 21an Iruñean osatuko den hautetsontzia osatzeko.

DENOK BAT FEDERAZIOAREN ZOZKETA

Iruritako Isabel Ciak irabazi du Cancunerako bidaia

50.000 tiket baino gehiagoren artean, Isabel Ciak Fantxiken bete zuena izan zen saritua DenokBat federazioak egindako zozketan. Pozez hartu zuen saria Eugin bizi den iruritarrak.

Denokbat Federazioa Berako Larun-Haizpek, Lesakako Zerbitzuen Elkartek, Bertan Baztane eta Doneztebarrak Elkartek osatzen dute eta apirilaren 13tik 30era hamar euro baino gehiagoko erosketak egin dituzten bezeroen artean zozketatu dute bi lagunentzako Cancunera-ko bidaia.



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA

Maiatzaren 6an jaso zuen saria Isabel Ciak Lesakan.

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 17AN

Lehen jaunartzea egingen dute zortzi neska-mutikok

Ezkontza zibila ere izanen dute udaletxean

Fermin ETXEKOLONEA

Lehen jaunartzea maiatzaren 17an egingen dute herriko zortzi neska-mutikok: Enara Santesteban, Sara Santesteban, Endika Santesteban, Manu Elizalde, Xabier Elizalde, Mikel Santesteban, Mirari Iribarren eta Ainara Arre-

gik. Egun berezia izanen da beraientzako eta familiarentzako.

Hauteskunde mahaia

Udaletxean zozketa egin eta lehendakaria Ainhoa Mutuberria izanen da, eta bokalak Inmaculada Grajirena eta Marina Argote.

Mus txapelketa

Maiatzaren 15ean jotuko dute Malerreka-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehuntze egunean parte hartu zuten zubietarrek ere

Zubietarrek ere parte hartu zuten Donezteben ospatu zen ehuntze egunean. Hiru oihal bete ziren eta partehartze handia izan zen. Herri kiroletan ere aritu ziren eta ederki joan zen eguna.

ko mus txapelketarako kanporaketa. 22:00etan Errandonea ostatuan hasiko dira Malerreka Egunerako txartel bila.

Ezkontza zibila udaletxean

Ander Ortuoste eta Nerea Arregi ezkonduko dira maiatzaren 16an

udaletxean. Herriko es-talpean egingen dute bazkaria eta mugimendua somatuko da herrian.

GIZARTEA

GIZARTEA → UDALBILTZAREN ESKUTIK BAZTANGO BALLEKO ETXEAN

‘Pirinioetan lan eta bizi’ laguntzak banatu dituzte

27 proiektu lagunduko dituzte aurten

TTIPI-TTAPA

Baztango Herriko Etxean, apirilaren 24an diploma eman zitzaian ‘Euskal Pirinioetan lan eta bizi’ programaren bigarren laguntza deialdian Udalbiltzak hautatutako 27 proiektuei. Udalbiltzak 4.000, 5.000 eta 6.000 euroko dirulaguntza emanen die ekimen enpresarial eta sozial haietako bakoitzari Elgarrekin, Garapen Soziala eta Eragin

deialdien baitan. Aurten lagundutakoekin, guztira 46 egitasmo dira 3 urteko programan Udalbiltzak, Euskal herriko Garapen eta Kohesio Fondoaren programaren bidez, lagundutako proiektuak.

laz, bertze 19 egitasmo lagundu zituen fondoak diru laguntza-lerroaren bidez. Beraz, guztira 46 dira fondoak “Pirinioetan lan eta bizi” hiru urteko programarekin lagunduko dituen proiektuak. Diru ekarpenari dagokionez, inbertsioa 230.000 eurokoa izan da.

Ekitaldia Garbiñe Elizegi Baztango alkatearen agurrekin hasi zen. Pirinioetako bailaren egoera zailaz aritu zen eta kezka agertu zuen Nafarroako Gobernuak ez duelako lurralde guztiaren garapen orekatuaren alde egiten.

Ekitaldiko mezu nagusia Mertxe Aizpurua Udalbiltzako eta Euskal Herriko Garapen eta Kohesio Fondoko lehendakariak eman du. Euskal Herrian behar handienez diren eskualdeei laguntzeko Udalbiltzaren konpromisoa aipatu du, horretarako



UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubin gauzatzen ari diren Eman-Har egitasmoa Axun Irazokik jaso zuen diploma eta dirulaguntza.

bertako erakundeekin, eragile sozialekin eta herritarrekin batera lan eginez. Modu berean, Euskal Pirinioen garapen ekonomiko eta sozialerako programaren balorazio baikorra egin du Udalbiltzako lehendakariak.

Eskualdeari dagokio-

nez, Eman-Har egitasmoa, Baztan-Bidasoko banabar ekologikoaren landaketa, Sagarren denbora filmea, Sunbite Sunbilla Indartuz Turismo Elkartea edo Euskaraz Blai udalekuak lagunduko dituzte, bertze zenbait ekimenen artean.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 2AN

Aizkora, bazkaria eta mus txapelketa Labaiengo bazkide egunean

Aizkora
desafioan
Maizeneko
bordako Xabier
Mindegia eta
Boroseneko
Pello Telletxea
garaile

Arantxa ITURRALDE

Aurten ere ospatu dute Labainen bazkide eguna maiatzaren 2an. Eguerdian eta ohiturari eutsiz, herritarren arteko aizkora lehiaketa jokatu zen. Zortzi enbor zituzten aurrez aurre hiru bikoteek. Batetik, Do-

lareko Jesus eta Migel Anjel anaiak, bestetik Arretzeko Jon Telletxea eta Otxoneko Jazinto Etxekolanea, eta azkenik garaile suertatu zirenak, Maizeneko bordako Xabier Mindegia eta Boroseneko Pello Telletxea.

Egun honetan, gizon berexi bat izan dugu gure artean. Basajaun eta jentil arrazatik heldu den kirolari paregabea, Joxe Aierbe ataundarra (ikus argazkian, goikaldean ezkerretik bigarrena) Gure euskalherri honek eman ditu bai, aizkolari eta lasterkalari handiak, baina Aierbe handia izan da benetan. Gizon



bizkor eta kementsu honek dauka marka, 20 kanaerdiko enborrak moztu eta 20 kilometro lasterka. Bere sasoiaren egin zuen lan hau, 2 ordu, 9 minutu eta 39 segundotan. 50 urtetan berriro plazaratu eta 2 ordu, 15 minutu eta 7 segundotan utzi zuen marka. Hor dago marka hori, hobetu nahi duenarentzat.

Aizkora saioa eta gero, elkartean bazkideak bakailua eta solomilloa izan zuten bazkaltzeko eta ondoren mus txapelketa antolatu zen. Joxe Mari Urroz eta Pello Telletxeak irabazi zu-



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Aizkora desafioan parte hartu zutenak eta mus txapelketako finalistak.

ten eta Maritxu Telletxea eta Pili Telletxea ahizpak, azpitxapeldun gelditu ziren.

DBHKO 45 IKASTETXETAKOAK

2.250 ikaslek parte hartuko dute Aurten Aste Berdean

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatzen duen *Haurra naturan barneratzeko kanpainan-Aste Berdean* inoiz baino jende gehiagok hartuko du parte, denera 2.250 parte-hartzailek eman baitute izena, Nafarroako DBHko 45 ikastetxetatik. Gazteek hiru egunetan, Baztan eta Bertizaranan kirol abentura ekintzak egiteko aukera paregabea dute. Azpimarratu beharrekoa da Elizondon ireki den Baztan Abentura Park berria (Nazioarteko FITUR feriak banatzen duen Abentura Turismo produktu hoberenaren sariaren irabazlea). Parke honetan partehartzaileek tirolina erral-

doiak, 200 metrotako ferrata bidea eta arroil jeitsiera egiten dute. Irakasleei penduloaren saltoa egiteko aukera ere eskaintzen zaie. Ekintza hauetaz gain, uretako beste hainbat ekintza ere egiten dira: Piragua Bidasoa errekan, hidrospeed, rafting (Bidasoaren ur mailaren arabera).

Aurten kanpainaren 19. edizioa burutzen ari da eta Nafarroako DBHko 2. zikloko eskolendako erreferentzi bat da. Gainera, Aste Berdeari esker 30 lanpostu zuzen eta zeharkako hainbat sortzen dira eta Baztan Bidasoaldea aditzera ematen da, eskualdeko ekonomian eraginez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Uretako hainbat ekintza eskaintzen dituzte Aste Berdearen baitan.

BASABURU TTIKIA

GIZARTEA → MAIATZAREN 30EAN SALDIASKO ESKOLAN HIZLARI

Liburua besapean heldu da Jakoba Errekondo

‘Bizi baratzea’ izeneko gida atera du Argiarekin, eta, haren berri ekarri bidenabar, solasaldia emanen du

Markel LIZASOAIN

Gaurgero, ez da harriz azpian inor izanen Jakoba Errekondok liburua atera duela ez dakienik. Hilaren 30ean etorriko da, larunbatarekin, eta 09:30ean Otxonta eskolatik emanen du irratiko saioa. Gero, liburuaren gainean ariko da, eta akaberran, beti bezala, jendearekin tertulian eta gal-demodueri erantzuten.

Nolanahi den, egun horretan ez dezakeenak jakin dezala bezpera ilunabartxoan Iruritan ari beharra dela.

‘BIZI BARATZEA’

Bada jendea baratzean eginahalak egiten hasi berri dena. Jende horrentzat ongi etorriko da Imindosberriko Jakobak liburu horretan dakartzkin erakutsiak. Baina baratzeak jakintsuenak ere aterako dio probetxua, 20-30 urte baratzea eginez pasatu duten bi pertsonak elkarri zer erakutsia duten bezala. Eta, atzenean, baratzearekin kezka handirik ez duenak ere gustura leitzeko modukoa da, baita esku artean ibiltzeko hutsa bada ere, erretratu ikusgarriak eta Arzeren, Leteren, Otañoren eta bes-

te idazlari frankoren poemaz, bertsoz eta aforismoz hornitua baitago. Solas ilaburrez: emateko asko duen liburua hartu nahi duenarentzat.

Bizpahiru parte dituela esan daiteke. Batean, gauza jeneral batzuk esplikatzen ditu, eta lurra nola prestatu, zer ongari klase ibili eta, inportanteena behar bada, lurrak nola funtzionatzen duen, aisa entenditzeko moduan. Beste parte batean, baratzeak landare zerrenda bat dakarki, eta hartan esplikatzen du bakoitza ze sasoitan eta nola erein edo landatu, eta beste majin bat burubide; konparazio: tipulak ez duela maite lur buztina, artoburua berdetan nola prestatu, plantako azenariak nola erdietsi, le-



ARGAZKIA: DANI BLANCO

Liburu berria aurkeztuko du Jakoba Errekondok.


kak nola bildu... Sukaldean janari gustua emateko ibiltzen diren beharrez ere kontu asko esaten ditu.

Filosofia handiko liburua, holaxeko solasekin hasten da atzeko azala: «Baratzean lurra iraultzen den bezala, iraultza dakar baratzeak» Eta elkarriketa batean esan berri duen bezala, «independentzia-zale bati galdera hauxe

eginiko nioke: zer jaten duzu eta non erosten duzu?».

HILAREN 29AN, IRURITAN

Jauregiko lorategian ariko da (eguraldi ona bada eta, gainera, Jauregiarte tabernan, 19:30ean), Jauregiarte taberna kulturalak eta Hazitik Hozie elkarteak antolatuta, eta Jo ala Jo taldeak alaituko du musikarekin.



LA SIMA
¿Qué fue de la familia Sagardía?

Prólogo de Francisco Etxeberria
Jose Mari Esparza Zabalegi


«Gazteluko herriari, bihotzez»
Jose Mari Esparza

LA SIMA
¿Qué fue de la familia Sagardía?

www.txalaparta.eus

Zure etorkizuna, gure erronka

*Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.*



Telekomunikazioen elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Mantentze lan elektronikoa



Eraikuntza eta topografia

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Eskaintza berritua eta osoa, Hezkuntzako Lege Organikora egokitua (LOE), Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dituen industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta (goizez)

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik, goizez eta bi kurtsotan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egiteko ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsaldez)

Bide honek Zikloetako moduluak era independentean ziurtatzeko aukera ematen du. Ordutegia ikaslearen beharretara egokitzen da. Lana eta bestelako eginkizunak ikasketarekin tartekatuz, hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratzeko aukera du ikasleak.

Goi Mailarako sarbide-froga prestakuntza kurtsoa

Goi Mailarako sarbide-froga prestatzeko kurtsoa egiteko aukera era bada.

Eleaniztasuna

Eleaniztasuna frantsesez edo ingelesez (talde bat osatzeko gutxieneko kopurua osatuz gero). Ingelese: Fabri-

kazio Mekanikoa, Instalazio Elektroteknikoak eta Obra Zibileko Proiektuak. Frantsesez: Zurgintza eta Altzarigintza.

Lanbide Heziketa Duala

Ikas-ekinezko heziketan oinarritua den modalitatea da. Alemaniako modeloaren antzera, ikastetxeetako prestakuntza lantegietako prestakuntzarekin konbinatzen ditu. Hartara, ikasleak ezagutza teoriko eta praktikoa guztiak bereganatzen ditu ikastetxearen eta lantegiaren artean, lan-kontratu batekin eta sektoreko lan hitzarmenaren arabera soldata kobratuz.

Lehen Aukera Programa

Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen programa berri hau Prestakuntza Ziklo bat bukatu duten ikasleentzat prestatua dago, enpresa batean ordaindutako praktikak eginez ikasleek lan-esperientzia har dezaten.



Mekanika



Elektrizitatea



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

Kokapena:

Elizatxo, 10

Irungo erdigunetik 300 metrora,
Elizatxo etorbidea eta Aduana
kalearen bidegurutzean.

GPS:

N 43° 20.198'

W 1° 47.897'



ATE IREKIEN ASTEA

ERDI MAILA: Maiatzak 18, astelehena, 18:30ean
GOI MAILA: Maiatzak 19, asteartea, 18:30ean
ARRETA PERTSONALIZATUA:
Hitzordua aldez aurretik eskatuta

IKASTETXEA ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, euren ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzako enplegu-aukera eta segimendu pertsonalizatua egiten du ikastetxeak helburu horrekin prestatua duen lan-poltsaren bitartez. Lan-Poltsa honi esker, enprestatik datozen lan-eskaerak kudeatzen ditugu eta gure ikasleek lan-merkatuan sartzeko aukera dute edo, kasuaren arabera, euren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzailetzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hamabost enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpreetan

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresendako prestakuntza-beharren diagnostikoak

2015 / 2016 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza egunez eta gauez*

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza

Gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA*

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK*

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

INSKRIPZIO EPEA

**Maiatzaren 25etik
ekainaren 5era**
biak barne

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 16tik 21era
biak barne

DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 15etik 17ra

100 m² antzezlana ikusgai izanen da Kulturaldian

Larunbateko afarian, berriz, Puro Relajo mariatxiak jarriko du giroa

TTIPI-TTAPA

Aitzineko alean aipatu genuen maiatzaren 13tik 17ra Donamaria-Gazteluko kultur talde-

ak, Malerrekako Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin antolatu duen Kulturaldiaren egitaraua, baina zenbait ekitaldi zehaztu eta gehitu ere egin dituzte. Honela, maiatzaren 15ean, ortziralean 17:00etan haur eta gaztetxoendako, egurrez egindako garai bateko jolasak izanen dituzte, talo tailerra



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerreka kantuz egin zuten maiatzaren 2an

Kantari eta musikari koadrila polita bildu zen maiatzaren 2an Donamarian, Malerreka kantuz ekimenean parte hartzeko. Plazan bildu ondotik, karrikaz karrika ibili ziren beraien abestiak hedatzen, giro ederrean.

eta mus txapelketaren aitzinetik. Larunbateko afarian parte hartuko duen musika taldea, berriz, Puro Relajo ma-

riatxia izanen da.

Igandean 19:00etan Donamariko Jauregian eskainiko den antzezlana ere zehaztu dute. Ju-

an Carlos Rubio egilearen 100 m² antzezlana taularatuko dute Iñake Irastorza, Ana Elordi eta Ramon Agirre aktoreek.

URROZ

GIZARTEA → ASTE SANTU AITZINETIK

Elizako ezkilak berriz ere ixilik

Ez da matxura izan, norbaitek nahita egindako ekintza baizik

Joseba URROTZ

Eguberri aitzinean gertatu bezala, Aste Santu aitzinean ere elizako erlojuaren ezkilak isildu ziren, eta halaxe daude oraindik. Gertakari xelebrea inondik ere, larria ez bada, ez baita berriz ere matxura izan, norbaitek nahita egina baizik. Ondasun publikoa hondatzea

ez ote da, inoren baimenik gabe?

Ez dirudi hauts haundiegirik harrotu duenik aferak, behar bada gehienok ez dugulako ezkilak beharrik ordua jakiteko. Baina bada adineko jendea, bere bizi ezkilak danden inguruan egin duena, falta hautesen duenik. Aspalditik ez da anjelusa jotzen, ezta ilun ezkila ere, orain ordurik ere ez. Herri ttikiok, etxe hutsez betetzen ari diren garaietan, ixiltasuna ere gailentzen ari da, azienda, zakur eta motorren soinua bai, bertzerik ez.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Elizako ezkilak ixilarazi zituzten Aste Santu aitzinetik eta horrelaxe daude oraindik.

Iragarkia grabatu dute Leurtzan

Forum Sport kirol arropa eta materialen markak, maiatzaren 6an grabatu zuen ekainean Euskal Telebistan ematen hasiko diren spot edo iragarkia; bistan da

aunitzek gustuko dutela leku hau modu ezberdineko ekintzak egiteko. Aurten onartu zen ordenantza berria, Leurtzako Aisirako eremuan enpresek antolatzen dituzten aktibitateak onartzen dituen, hala nola, baimenak, or-

dainsaria eta abar. Diru sarrerei esker, eremu hori mantentzea lortu daiteke Gobernutik etortzen den laguntza puxka osatzeko. Aurten, bi zaindairez gain, bertze bi pertsona kontratatuko dira mantenimendu lanak egiteko.

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 3AN

Santa Kruz pesta ospatu zuten ermitan

Urtean bi egunetan bakarrik erabiltzen da baseliza, gurutzearekin lotua duten egunetan besterik ez

Fernando ETXEBERRIA

Maiatzaren 3ko ohiturarekin segiz, Ezkurako Santa Kruz ermitan santuaren omeneko besta egin zen. Mezaren aurretik apaizak ingurua bedeinkatu zuen eta segidan denek elkarrekin eukaristia ospatu zuten. Urteko bi egunetan bakarrik erabiltzen da ermita, maiatzaren 3an eta irailaren 14an, hau da gurutzearekin lotura duten egunetan. Bada aipagarria den datu bat, gure inguruan hiru ermita daude Santa Kruz izenekoak, bat Areson, bestea Leitzan eta azkena Ezkurran. Hainbat historialariren arabera, inguru horretan Gipuzkoatik zetozen sorginak ibiltzen ziren eta beraiei aurka egiteko ermitak eraiki zituzten, usate baitzuten ermitak zeuden tokietatik sorginik ez zela pasatzen. Gaur egun, Ezkurra eta Leitzako hainbat herritarrek hiru ermiten ibilbidea egin ohi dute aste santuan.

Aralako San Migelen bisita, antzinako ohitura

Herrian aspalditik dago Aralako San Migelen bisita ospatzeko ohitura. Garai batean herri osoa Perralekun elkartzen zen irudiari ongi etorria egiteko eta gero ermitaraino 4 kilometroko bidea egiten zuten. Bertan parrokoa zain egoten zen gurutze batekin eta San Rafaelen irudiarekin. Musua eman ondotik, prozesioan joaten ziren elizaraino eta han meza izaten zen. San Migelen irudia apaizetxean gelditzen zen eta hurrengo eguneko meza bukatutakoan herri osoa joaten zen elkarrekin Eratsungo mugaraino, eratsundarrei irudia emateko.

Gaur egun ez da, inondik ere, herri osoa joaten San Migelen bila, baina halere ohitura mantendu da. Aurten maiatzaren 4an ospatu da, kapilauak eta laguntzaile batek kotxez ekarri zuten eta hainbat herritar elizako atarian zain zeuden. Mezaren ondotik, Eratsunera eramane zuten. Eta gaueko bederatzietan, udalak kapilaua eta bere laguntzailea afaltzera gonbidatu zituen, San Migelen begiradapean eta mus partida batzuekin luzatu omen zen afalondoa, ospakizuna ongi bukatzeko.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko bi argazkietan, Santa Kruz ermitan egin zen meza eta meza aurreko bedeinkazioa. Behean, Udaletxek kideak, kapilaua eta laguntzailea, San Migelen begiradapean afaltzen.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 1 ETA 2AN

Giro bikaina izan dute aurten ere Txinoko festetan

Juantxo eta Aitor Apezetxea aita-semeek irabazi zuten mus txapelketa

TTIPI-TTAPA

Beste urte batez maiatzeko lehen aste-buruan ospakizun giro ederra izan dute Goizueta, Txino auzoko festak ospatu baitituzte, Gazte Asanbladak, Ezker Abertzaleak, Zubiondok, Udalak eta

Umore Onak antolatuta. Joan den urtean bezala, maiatzaren 1ean, ostiral arratsean Julio Sotok eta Xabier Legarretak eman zioten hasiera festari, Zubiondon eskainitako saioarekin. Mus txapelketa ere jokatu zen, 12 bikoterekin. Juantxo eta Aitor Apezetxea aita-semeak suertatu ziren txapel-dun eta Josu Narbarte eta Iñaki Rodriguez azpitxapeldun.

Halere, festetako egun handia larunbata



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Soto eta Legarreta bertso kantari eta mus txapelketa ostiralean; txupinazoko protagonistak eta ikusmina piztu zuten dantza orientalak larunbatean. Aurten ere bikain Txinoko festetan.

izan zen. Ohiturari eutsiz, eguerdian bota zuten festei hasiera ofiziala ematen zion txupinazoa, nahiz aurretik herri krosaren laugarren edizioa ere burutu zen. Aurten ere auzotar batek bota zuen lehen su-

ziria, Euxtakio Zubietak, Xatur Salaberria ematearekin eta Oihane Zugarramurdi bilobarekin batera.

Dragoi koloretsua hara eta hona ibili zen eta herri bazkarian ere jendetza bildu zen.

Bazkalondoa, Shama-liats BellyDance sabel dantza eta beste dantza orientalak ikusteko aukera izan zen, baita trikitilariarekin kalejiran ibiltzeko ere. Gauerditi aurrera kontzertuak ere izan ziren.

FLASH

Hauteskunde mahaia eskola berrian

Maiatzaren 24ko udal eta Nafarroako parlamenturako hauteskundeetako hautetsontziak lehen aldiz Andres Narbarte *Xalto* eskolan jarriko dituzte eta ez orain arteko tokian.

Eskolarteko Topaketako txartelak

Ekainaren 6an ospatuko da Areson, Goizueta, Areso eta Leitzako eskolen topaketa. Bazkarirako txartelak estankotan salgai daude maiatzaren 27ra bitarte.

Umore Ona Abesbatza Iruñean

Umore-Ona Abesbatzak kontzertua eskainiko du maiatzaren 23an, eguerdiko 12etan Iruñeko Kalle Nagusian dagoen Kondestable Jauregian.

Reiki ikastaroa

Amaia Artzek reiki ikastaroa eskainiko du maiatzaren 30 eta 31n Udaletxeko Ganbaran. Larunbatean goiz-arratsaldean eta igande goizean.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Unai Señorán eta Vanesa Pacha garaile IV. Herri Krosean

Maiatzaren 2an jokatu zen laugarren herri krosa. 38 korrikalari heldu atera ziren. Gizonezkoetan, aurreko hiru edizioetan bezala, Irurako Unai Señorán izan zen irabazle (32:54), bigarren Lasarte-Oriako Raul Gomez Margallo izan zen eta eta hirugarren Alkotzeko Mikel Beunza (33:33). Emakumezkoetan, Vanesa Pacha irabazle (38:55), bigarren Barbara Badosa kataluniarra (45:31) izan zen eta hirugarren Arantxa Uranga Fraiz (47:16). Herriarren artean onenak, gizonezkoetan Hodei Lujanbio izan zen (37:51, zortzigarren sailkapen orokorrean), eta emakumeetan, aurten ere, Ane Zinkunegi (54:56).

10 SARRERA ZOZKETATUKO DITUGU urtean zehar

IGANTZI NAFARROA
Tel +34 948 928 922
www.irrisarri.es

GIZARTEA → MAIATZAREN 12RA ARTE

Etixerako egur loteak eskatzeko epea zabalik

Udal bulegoan egin behar da eskaera

Juana Mari SAIZAR

Pasa den urtean bezala, bost tona eta erdiko loteak izango dira eta eskuratzeko moduaren arabera izango da ordaindu beharreko zen-

batekoa. Lotea etxeraino ekartzea nahi dutenek 175 euro ordaindu beharko dituzte, lotea atera eta pistan uztea nahi bada 75 euro eta lotea beraiek bota eta ekartzea aukeratzen dutenek 40 euro ordaindu. Izena ematerakoan zehaztu beharko da lotea eskuratzeko modua.



ARGAZKIAK: NAZABAL ESKOLA

LOMCEk inposatutako frogei ezetz!

Nazabal eskolako haur, irakasle eta gurasoek elkarretaratzea egin dute LOMCE legearen aurka.



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR ETA JAIONE OLAZABAL

Aresoko parrokia pazko oparoa bizitzen ari da

Maiatzaren 2an, aspaldiko ohitura berreskuratu eta Santa Kruz ermitan erromeria egin zen. Gurutze bidea eginez 29 lagun bertaratu ziren meza ospatzeko prest. Ondoren hamaiketako egin eta herriko bidea hartu zuten. Eguraldi ederra eta beroa izan zen eta goiz ederra pasa zuten han bildutakoek. Hurrengo egunean, maiatzeko lehenengo igandea izanik, aingerutxoek Ama Birginari loreak eskeini zizkieten eta Mikel Goiaingeruaren irudiaren bisita ere izan genuen.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Guraso elkarteak antolatuta zuhaitz landaketa egin dute

Eluseder parajeen lizarrak aldatu zituzten etxeko ttikienek gurasoen laguntzaz. Primeran pasa zuten elkarrekin lanean. Orain zuhaitzak hazten diren ikusi behar!

gobērnatzea GEHIENGOARENTZAT

BOZKATU
PSN-PSOE



MARÍA CHIVITE

Nafarroako lehendakartzako hautagaia



mariachivite.es



ALFREDO ZUGARRAMURDI

PSN-PSOEren Santesteban-Donztebeko alkategaia

LEITZA

KULTURA → 38. EDIZIOA

Kultur Aroa maiatzaren 14tik ekainaren 13ra ospatuko da

ALKEk eta herriko hainbat eragilek antolatuta

JM BARRIOLA

Maiatz erdialdetik hasi eta ekainaren 13ra arte kulturaz blaituko da herria. 38. Kultur Aroa da eta aurtengoan ere mota guztietako ekitaldiak izanen dira.

Maiatzaren 14an Atekabeltzen eta **15ean** Aurreran, 19:30etik aurrera Saharar herriaren inguruko proiektzioa eta foruma antolatu dituzte. Gainera Leitzako Saharar Herriaren aldeko taldeak argazki bildumabat jarriko du ikusgai Aurreran eta herriko tabernetan.

Maiatzaren 16an Mendibil taldeak ume eta gazteentzat mendi irteera prestatu du, 9:00etan plazatik abiatuta. Jubilatuen tabernan 20:00etan *Iruxulo* zeltiar musika taldea eta 00:00etan Atekabeltzen *Zopilotes Txirrius* ariko dira.

Maiatzaren 17an *Sinfonietta Academica* taldearen *Adioses* kontzertua elizan 12:30etan.

Maiatzaren 18an *Kuba* eta *AEBren arteko harreman berrien* inguruan Jordi Mataren hitzaldia 19:30etan Atekabeltzen.

Maiatzaren 19an Atekabeltzen Unai Aranguren *Bizilur* proiektua aurkeztuko du 20:00etan, LeitzEKO kontsumo taldeak antolatuta.

Maiatzaren 20an *Burdin hariak eta plasti-*



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurreko edizioetan bezala jendetza biltzea espero da antolatutako ekitaldietan.

kozko goilareak ikuskitzuna landuko dute Oier Gonzalez eta Markel Ormazabalak.

Maiatzaren 21ean *Erriberako paloteadoak* izanen ditu hizpide Mikel Lasartek Aurreran 19:30etan. Larunbatetako martxari eutsiz, Mendibil Taldekoek, Pasai Donibane-Jaizkibel-Hondarribi irteera egingen dute 7:30etan Oialdetik abiatuta.

Maiatzaren 23an Aralar Musika Eskolak antolatuta *Patxiren Botila kontzertua* Erletako jangelan 11:30etan eta 17:00etan Ene kantak ikuskizuna umeei zuzenduta zinean.

Maiatzaren 26an Berdintasun zerbitzuek antolatuta *Kirolean berdintasuna?* hitzaldia Ainhoa Azurmendirekin, 20:00etan Atekabeltzen.

Maiatzaren 27an gurosoentzat *Gaitasun handiak eskola mailan antzeman eta jardun* hitzaldia Jose M Cresporekin Aurreran 19:30etan.

Maiatzaren 28an *Umoreraren gerra* mahai

ingurua Olaia Aldaz eta Uxue Anduagarekin, Angel Rekalde moderatzaile dutela.

Maiatzaren 29an Aralar Musika Eskolako ikasleen kontzertua 18:00etan zinean. Ondoren Tot de Geants erreportajea eta Maddi Arrazola Mendi Errokaren baitan.

Maiatzak 30ean Euskal Herria Mendi Erronka eta gauean Atekabeltzen kontzertuak Governors eta Dama taldeekin 00:00etan.

Maiatzaren 31an XXXVII. Artesau Azoka 11:00tik 19:00etara. (Ekaineko ekitaldien berri hurrengo alean)

BERDINTASUNERAKO BIDEAN

Kiroletan emakumeen presentzia bultzatzeko ekimenak

Leitzako krosean emakumeen parte hartzea indartzeko egindako taldekako entrenamenduek eman zuten fruitua eta %40 igo zen parte hartzaileen kopurua. Eskolan ari dira orain gaia lantzen neskatoen parte hartzea bultzatzeko asmoz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Genero indarkeriari buruzko ikastaroa apirilaren 14 eta 21ean

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak eta haien seme-alabak lagundu eta esku hartzeko protokoloa sortzeko asmoz, ikastaroa egin dute gizarte zerbitzuetako eta osasun etxeko gizarte langileek.



Pertsonaiak

ILLARREGI anaiak

Bertso maila bikaina erakutsi dute Nafarroako Eskolartekoan

Berriki jokatu den Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan parte hartu dute Joanes eta Xabatek eta saio ederra egin dute biek ala biek. Txapelketako bigarren fasea sailkatu ziren biak eta Joanesek txapela ekarri zuen Leitzara. Animo mutilak eta segi bertsotan!

BESTAK → MAIATZAREN 22TIK 25ERA

Urteko desafioa eginen dute Mendekoste egunean Berroetan

Iruritako
Guillermo
Etxenike eta
Legerretako
Igor Esnaola
aurrez aurre

TTIPI-TTAPA

Aurten ere egitarau zabalarekin datoz Berroetako bestak.

ORTZIRALA, MAIATZAK 22 BEZPERA

- 22:00etan suziriak beste hasiera emateko.
- 20:30ean txopo goratzea herriko trikitilariekin.

- 21:00etan Mutildantzak. Segidan txalapartariak.
- 21:30ean Baztan Zopak (Txartelak salgai, Maialen-Andoni).
- 00:00etan dantzaldia TRIKIDANTZekin. Ondoren DJ IÑAKI. Gantorri autobus zerbitzua gau osoan.

LARUNBATA, MAIATZAK 23 HAURREN EGUNA

- 11:30ean BKZ puzgariak egun osoan eta gazteendako tirolina.
- 14:00etan gazteen bazkaria Aizkoan.
- 16:00etan puzgarriak eta tirolina.
- 18:00etan dantza era-



UTZITAKO ARGAZKIA

Berroetarrak, gan den urteko asto karreran.

- kustaldia Iruña taldearekin. Gero Fanfarrea-rekin herri poteoa.
- 21:30ean herri afaria (Txartelak salgai Maialen eta Andoni). Kantu zaharrak Salaberri-rekin.
- 00:00etan dantzaldia Salaberrirekin eta ondotik gosaria.

IGANDEA, MAIATZAK 24 MENDEKOSTE EGUNA

- 11:00etan Meza Nagusia Gaztelu Abesbatzarekin.
- 11:45ean gaiteroak, Doneztebeko eta Buralako erraldoiekin.
- 12:15ean luntxa.
- 13:00etan herriko

gazteen arteko pilota partida. Egun osoan hurrendako puzgariak.

- 17:30ean Baztango dantzari ttikiak.
- 18:00etan urteko desafioa: Igor Esnaola vs. Guillermo Etxenike. 14:00etan abiatuko dira Zigako kaskotik Sarioara 50 kiloko zakua-rekin. Karga utzi eta Berroetako plazara jautsi eta han 100 kiloko zilindro zaharra 10 aldiz goratu eta aizkorarekin 4 kanaerdiko moztuko dituzte.
- 19:30ean dantzaldia Hauspolarekin.
- 22:00etan xinger ja-

tea euskal kantu zaharrekin.

ASTELEHENA, MAIATZAK 25 ZIKIRO EGUNA

- 11:00etan XLII. Bizi-kleta Itzulia.
- 12:00etan mus txapelketa.
- 13:00etan herriko argazki erakusketa.
- 14:00etan zikiro jatea Joxe Angelekin.
- 19:00etan herritarren arteko futbol partida.
- 21:30ean xinger jatea Joxe Angelekin.
- 00:00etan Gaixua Ni bestak akitzeko eta indarra duenarendako zapi jokoa barruko arropetan.

OSPAKIZUNAK → BERROETAKO ASTEBURU KULTURALAREN BAITAN

Iruritako Jagoba Ramosek irabazi du argazki lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Apirileko hondar asteburuan Asteburu Kulturala ospatu zuten Berroetan eta argazki lehiaketako saridunak ere jakinarazi zituzten. Lehen saria (bi pertsonendako afaria) Iruritako Jagoba Ramosek lortu zuen, *Ilunabarra* izeneko argazkiarekin. Itsusi Argazki Elkarteak kideek eta herritar batek osatutako epaimahaiak argazki hau saritu zuen

erakusten duen bizitasuna eta lortutako argi kontraste ikusgarriengatik. Bigarren saria (bertako produktuen xortak) Maialen Iantzi Berroetarrak eskuratu zuen *Urleiko kaxkoan zakurra* argazkiarekin.


Orotara 38 argazki aurkeztu dira eta epaimahaiak kontent agertu da argazkien kalitate eta barietatearengatik.

Baina argazki lehiaketako sariak banatze-

az eta lanak erakustez gain, bertze hainbat ekitaldi egin zituzten Berroetan.

Larunbateko Euskal kantu afarian 60 bat pertsona bildu ziren eta giro bikaina sortu zen, Salaberri kantariarekin batera. Igandean, bes-tondorik ez zeukatenak mendi ibilaldia egiteko elkartu ziren, Berroetako paisai ezkutuen bila eta Oinez Gailurraren ikurra agertu zuten.

ARGAZKIA: JAGOIBA RAMOS
Ilunabarra, lehen saria
Berroetako lehiaketan.



BAZTAN

KIROLA → MAIATZAREN 3AN

Udaberriko XXV. pilota txapelketaren finalak jokatu dituzte Elizondon

90 bikote aritu dira zortzi kategoriatan

TTIPI-TTAPA

Txarutak antolatuta-ko 25. edizioko azken partidak maiatzaren 3an, igande goizean jokatu zituzten Elizondoko Baztan udal pilotalekuan. Denera 90 bikote aritu dira txapelketan eta 200 partida baino gehiago jokatu dituzte.

Umeak B kategorian, Ultzamako Andoni Sarasibar eta Josu Etxeberriak 18-13 irabazi zie-

ten Añorgako Enaitz Olliden eta Zestoako Aritz Anduagari.

Umeak A kategorian, Andoingo Aitor Arrillaga eta Errenteriko Iratitz Goikoetxeak 18-17 irabazi zieten Berako Aritz Etxebeste eta Lesakako Oihan Etxeberriari.

Kimuak B kategorian, Berako Jon Pagola eta Iker Etxebestek 18-5 irabazi zieten Ultzamako Iker Etxeberria eta Jon Garaikoetxeari.

Kimuak A kategorian, Añorgako Unai Amiano eta Zestoako Oier Alonsok 18-17 irabazi zieten Hernaniko



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumeen frontenis txapelketako finalak jokatu zituzten

Apirilaren 18an, Baztango Emakumeen Frontenis txapelketako finalak jokatu ziren Irurritako frontonean, hilabete oso batean astebururo frontenis partidua izan ondotik. Lehen mailan, Nuria Garate eta Edurne Argainek 30-19 irabazi zieten Kristina Urtasun eta Idoia Argain-i. Bigarren mailan, Iratxe Gamio eta Sagrario Irigoienek 30-23 irabazi zieten Arantxa Goñi eta Ines Obregozori.

Unax Uitzi eta Xabi Apaolazari.

Haurrak B mailan, Errenteriko Itoitz Salaberria eta Ioritz Aranburuk 18-14 irabazi zieten Burlatako Beñat Villanueva eta Unai Marin-i.

Haurrak A mailan, Elizondoko Asier Ballarena eta Lekarozko Oier Ariztegik 18-7 irabazi zieten Añorgako Eñaut Izeta eta Oier Izetari.

Kadete mailan, Azkaineko Bixente Laffite eta Sarako Aritz Lekuonak 18-8 irabazi zieten Hernaniko Endika Arizmendi eta Garikoitz Arizmendiri.

Gazte mailan, azkenik, Igantziko Oihan Canabal eta Elizondoko Sergio Oskozek 22-12 irabazi zieten Senpereko Titouan Mendy eta Ronan Mendyri.

FLASH

Nazioarteko Museoen Eguna

Maiatzaren 18an Nazioarteko Museoen Eguna ospatuko dela eta, maiatzaren 16 eta 17an, larunbat eta igandean Baztango Museoen sarrera doan izanen da.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa

Goi Mailako Musika Kontserbatorioa ikasleek kontzertua eskainiko dute maiatzaren 22an, ortziralean 19:00etan Arizkunenean, Udal Musika Eskolak antolatuta.

Arteak Oinez erakusketa

Baztan: Barrenetik kanpora erakusketa ikusgai dago Arizkunenean maiatzaren 6tik 21era, Arteak Oinez ekimenaren baitan. Maiatzaren 10 eta 17an, 12:00etan eta maiatzaren 13 eta 20an, 18:00etan bisita gidatuak egitekoak dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txapelketan parte hartu duten pilotarietako batzuk, txapeldun, txapeldunorde eta antolatzaileekin, sariak jaso ondotik.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONZO - MUGAIRI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttppi.eus

GIZARTEA → AMAIURREN ERRE ZEN GAN DEN URTEAN

Dorrekobordako lanei baimena emateko Udala Gobernuaren oniritziaren zain

Apirilaren 23an akituko da lanak aurkezteko epea

TTIPI-TTAPA

Amaiurren gan den urtean erre zen Dorrekobordako bizilagunak oraindik etxera bueltatu ezinean daudela eta Baztango Bilduk jakinarazi duenez, «baserria erre ondoan Udala gobernuko ordezkariak familiarekin bildu ziren eta laguntza eskaini zitzaion bai etxea konpondu bitartean etxebizitza bat alokatzeko baita etxearen teilatuarendako egurra emateko ere. Aseguruaren bitartez egiteko aukera zutenez ez zuten beharrik ikusi».

2014ko urriaren 28an etxea berritzeko proiektua udaletxean sartu zen; arauak jarraiki azaroaren 3an Nafarroako Gobernurat bideratu zen; azaroaren 21ean Nafarroako Gobernutik promotoreari errekerimendu bat egin zitzaion eta promotoreak 2015eko urtarrilaren 23an erantzun zion; urtarrilaren 26an Nafarroako Gobernura erantzuna bideratu zen; otsailaren 18an bertze errekerimendu bat aile-

gatu zen Nafarroako Gobernutik eta promotoreak martxoaren 30ean erantzun zion. Udalak apirilaren 9an bidali zuen Nafarroako Gobernura eta geroztik honen erantzunaren zain daude Gobernuaren oniritzirik gabe ez baita lizentzia ematen ahal.

Nolanahi ere, lanak aitzinatzen ahal izango direla paratzeko eta paretak botatzeko baimen berezia eman du Balleko Etxeak. Udalak baimen hau bai eman dezake, berriz, Nafarroako Gobernuak



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Udaberriko jaialdi bikaina eskaini zuten Lur aretoan

Elizondoko Lur aretoan, maiatzaren 2an jaialdi bikaina eskaini zuten Elizondoko Recreo musika bandak, Baztango dantzariak eta Baztango akordeolariak. Lur aretoa lepo bete zen emanaldi gustagarria ikusteko eta aditzeko.

baiezkoa eman artio ez du ematen ahal. Beraz, Bilduk dioenez, «etxea berritzeko espedienteari lehentasun osoa eman dio baina bere eskuan ez dauden arazoengatik egoera hau da».

LEHORRARI BURUZ

Lehorrari dagokionez, herri baso-lurzoruan baimenik gabe egin zela aipatu du Bilduk: «Erretako etxearen on-

doan egindako lehorra zen eta zehapen espedienteak abiatu zirenean baserria erre aitzirnetik. Araudiak dio arau hauste larriagatik lehorra bota eta ingurua lehengoratu behar zela, ez zelako legeztatzen».

Hori horrela, jabeek izandako ezbehar batengatik lehorra botatzea gibelatzeko eskatu eta bi aldiz luzatu da, guztira urte beteko

luzapena emanez. Berriz ere luzamendua eskatzeko aukera bazuten ere, epez kanpo eskatu eta, horrek, aukera hori gabe utzi zituen. Udaleko idazkariaren txostenak baldintza horietan luzapena ematea ezinezkoa egiten du. Dena den, etxea konpondu bitartean Udalak gauzak uzteko bertze toki bat eskaini zion familiari.



Aroztegia 1890az geroztik

Mugikorra: 650 53 20 73
Telefona: 948 58 14 18

arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

IRURITA

MOSKITERAK

- Moskitera batekin euli eta moskitoetaz babestu
- Eguzkiaz babestu toldo batekin

TOLDOAK ETA ESTOREAK

ETXEA - MERKATARITZA - OSTALARITZA



BAZTAN

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 7AN

Txistularien Alardea antolatu du Oinezek

Hamabortz herrietan hedatu nahi dituzte txistu soinuak eta gonbita luzatu diete inguruko txistulariei

TTIPI-TTAPA

Nafarroa Oinezen talde antolatzaileak, heldu den ekainaren 7an, igandean, ospatuko den Txistularien Alardean parte hartzeko gonbita egin die inguruko txistulariei.

Goizeko lehen orduetan Elizondon elkartuko dira eta, talde txikiak egin ondotik, bailarako 15 herrietan banatuko dira horiek txistu soinuekin alaitzeko.

Gero, Elizondora itzuli-ko dira denak eta bertan Mariano Izeta, Javier Larralde, Maurizio Elizalde eta Felix Iriarteri omenaldi xumea eskainiko diete. Segidan, bazkal ordura arteko kalejira bat egingen dute guztiek batera. Bazkaria Casino Elkartearen izan da, prezio ekonomikoan.

Guztia antolatu ahal izateko, bailarako 15 herrietara banatuko diren txistulari taldeak no- la bazkaltiarren kopurua ere, ahal bezain lasterren Nafarroa Oinezeko antolaketarekin harremanetan jartzeko eskatu dute. Izena emateko hondar eguna maiatzaren 25a izanen da eta antolatzaileen helburua jardunaldian ahalik eta txistulari eta atabalari gehien biltzea

da. Interesa dutenek edo informazio gehiago nahi izanez gero, jarduerak15@nafarroaoinez.net helbide elektronikora idatzi edo 647 35 30 85 (Jaime Biguria) telefono zenbakira deitu behar dute.

Oinez Basoa

Baztan Ikastolak bere ekarpenak egin nahi dizkio orain dela zazpi urte Nafarroa Oinezen baitan sortu zen ekimenari.

Hala, galzorian diren bi landare mota babestuz osatuko dute Baztanen sortuko den basoa: karpea edo pagolizarra eta erramu portugalarra edo loroa. Eta eremu komunalean egingen da baso berria eta, hortaz, baztandar guztiena izanen da Oinez Basoa. Horrez gai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Oinez Basoaren aurkezpena.

nera, ia atzenduta dagoen minditze (baztaneraz) landaketa ohitura zaharra ezagutzera emanen dute. Akitzeko, Oinez Basoaren edukia hedatzeko euskarri garrantzitsua den webgunea (www.oinezbasoa.eus) berrituta dakarte aurten Oinezen antolatzaileak, goititik beheitira.

Diseinu modernoan du, eta itxura atseginekoa eta erabilerraza da,

sareko edukiak al bait hobekien erabiltzeko prestatu baita. Interneti eta sare sozialei ahalik eta probetxurik handiena ateratzen saiatzeko bideratua dago. Bi hizkuntzatan eskuragarri dago (euskaraz eta gaztelaniaz) eta askotariko euskarrietara egokitu da diseinua; hau da, telefono, tablet zein ordenagailu bidez bistaraten ahal da behar bezala.

Baztanen 2015ko uztailean eta abuztuaren 3-12 urte bitarteko haur eta gazteentzako udako jostaldia eskuaraz

Antolatzailea: BAZTANGO UDALA Euskara Zerbitzua

Uztailean (20-31) eta abuztuaren (3-14), goizeko 10:00etatik 13:00etara

txandak:

- 1- Uztailearen 20tik 31ra | Erratzun (kodea ER)
- 2- Abuztuaren 3tik 14ra | Elizondon (Kodea EL)

(Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehentasuna bi aste eginen dutenek eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute)

helburuak:

- Udako aisialdiaz gozatzea.
- Baztango haurren arteko harremanak bultzatzea eta estutzea.
- Baztango kultura eta natura ezagutzeta.
- Haurren garapen pertsonala lantzea.
- Ingurumenarekiko jarrera positiboak sustatzea.

zandura:

Jokoak, eskulanak, parekidetasunean hazteko jolasak, tailerrak (birziklatzea, buztina, antzerkia,...), ateraldiak, kirola...

prezioak:

- Baztanen erroldatuak 65 € txandako | 55 € familia ugaria bada edo txandak anai-arreba bat baino gehiago badira | 35 € aste bakarra.
- Baztanen ez erroldatuak 120 € txandako | 65 € aste bakarra.

izen ematea:

Telefonoz Dindaia Fundazioan Tel.: 696 27 75 99. maiatzaren 11tik 22ra goizeko 10:00etatik 13:30etara. Ordeinketa egin baino lehen izena emateko deitu, eta ordeinketa egitean haurraren izena eta kodea jarri. Kontu zk. (La Caixa) 2100 5255 10 2200035704 Ordeintzeko azken eguna: maiatzaren 28a

aurkeztu beharrezkoak:

- Familia ugariaren txartela, behar izanez gero, Baztan Balleko Etxean.

...hori guztia eskuaraz

euskaraz bizi nahi dut

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 3AN BERROETAN

Maurizio Elizalde eta Mariano Izeta omendu ditu Jo ala Jo taldeak

Bien jaiotzaren mendeurrena gogoratuz ekitalditxoak egin zuten

maiatzaren 3an Berroetan. Argi soinuaren ondotik, eguerdian, Mariano eta Maurizio oroitzeko ekitaldia egin zuten eta ondotik dantzak denendako.

TTIPI-TTAPA

Mariano eta Maurizio oroitzuz izenburupean Baztango dantzak eta bertze zenbait ekitaldi antolatu zituen Jo ala Jo Kultur Taldeak

JAIOTZAREN MENDEURRENA

Aurten 100 urte bete dira Mariano Izeta (1915.7.14) eta Maurizio Elizalde (1915.9.21) sortu zirenetik. Jo ala



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

11.988 euroko txekia eman dio Nafar Mendik Zahar Etxeari

11.988 euro bildu ditu Arraiozko HiperSimply Nafar Mendik merkataritza gu-neak Elizondoko Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxearen alde martxoan, zenbait hornitzaileekin batera egindako elkartasun eta laguntza kanpainan. Zahar Etxea kudeatzen duen Patronatuari txekia eman zion, Zahar Etxeko 50 bat lagunekin egindako bazkarian. Elkartasun kanpaina hau, iazko uztailearen 4ko uholdeen ondorioz izandako kalteak ordaintzen laguntzeko egin dute.

Jo taldekoen erranetan, «Biek Baztango folklo-reari ekarpen aberas-

garria egin diote, neurri haundi batean hauen jarraipena bermatuz eta

baztandar guztion ar-dura da lan honi segida ematea».

BAZTANDARRAK

garaile!

VOTA
EMAN BOTOA

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → MADARIA ETA MENDI ALDERA

Aziendak ez pasatzen uzteko burdinak eman dituzte herri sarreretan

Bertze aldetik, Aste Saindutik berriz ere ideki dute Burkaitzea jatetxea

Margari eta Koro

Madaria eta mendiko bideetan lanetan ari dira egun hauetan. Udalak erabaki du, herriko bi sarreretan, aziendak ez pasatzen uzteko burdinak ematea ("paso canadiense" deitzen den sistema).

Kanposantua eta kanpamentuko bidegurutzeko tartean ematen ari dira Madaria aldeko

kanadiar hesia. Mendi-ra gaki dena berriz, soziedadetik metro gutti batzuk goiti.

Burkaitzea berriz ere ideki dute

Berri ona da, urte batzuk etsita egon den negozio bat, berriz ere edikitzea, eta hori da Burkaitzea jatetxearekin gertatu dena.

1998 urtean edeki zen, baina bortz-bat urte etsirik zituen. Orain Mari Angeles, Mari Luz eta Teo animatu dira, eta gan den Aste Saindutik bertze jatetxe bat daukagu zonaldean, Alkerdi auzoan hain juxtuki.



Ba al zenekien

I. Argazki Rallyko sariak maiatzaren 16an banatuko dituztela Sorginen Museoa 18:00etan.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Madariako bidean emana den burnia, aziendak pasa ez daitezzen.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Bortz bat urtez itxirik egon ondotik, berriz ere ideki dute Burkaitzea.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km.tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO
 T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibadin 31780 BERA Luzalde 31660 LUZAIDE

tabac prêt à porter restaurant supers tabac cadeaux maroquinerie

SENPERE

KULTURA → MAIATZAREN 30ETIK EKAINAREN 14RAT BERINAK III. JAIALDIA

Julio Le Parc artista izanen da Berinak arte garaikide jaialdian

Bertsu saioa ere izanen da pilota plazan hilaren 30ean

Franck DOLOSOR

Berinak arte garaikide jaialdiaren hirugarren edizioa ospatuko da maiatzaren 30etik ekainaren 14rat. Iñaki Viquendi eta Anne Marie Jeannou arte garaikidezale senpenterrek apailatzen dute hitzordu hau zubiak sortzeko gurea bezalako ohitura haundiko herri bat eta gaur egungo artearen artean.

Aurten ere goi mailako artistak izanen di-

ra, hauen artean Julio Le Parc, Juan bere semea eta Eli erraina; Gonzalo Etxebarria Barkoxen plantatua den margolari bizkaitarra, Maia eta Baptiste Ibar miazarrizarrak eta Bertrand Dezoteux.

1960. hamarkadan, GRAV taldearen baitan, egiteko molde garaikideak lantzen hasi zen Julio Le Parc, argi artifiziala, ingurugiroa eta ikusleen inplikazioaren inguruan. Londres, Los Angeles eta Tokion barna ibili da geroztik hizkuntza minimalistarekin. Berinak III festivalaren kariatarat Jondoni Petri elizan erakutsiko ditu bere obrak.

Gonzalo Etxebarria bilbotarrak Madrilén eta Deban egin zituen ikasketak, Jorge Oteizarekin eta orain Mendikotako Uztaro artista taldearen sustatzaileetako bat da. Eliza eta Urdazuri ibaiaren artean den parke publikoan erakutsiko ditu bere lanak.

Arte garaikidea gauza berria da Senperen. Ahatik, berritasun horri esker Matxin Irabolak hain gustukoa zuen bertsularitzak bere tokia izanen du berriz herrian. Izan ere, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Xumai Murua eta Eneritz Zabaletak bertsu saioa eskainiko dute maiat-

zaren 30ean, 16:00etan pilota plazan eta karrika nagusian. Josu Goikoetxea izanen da gai emalea. Artisten arteko eztabaiek, bideo erakustaldiek, Larreko aretoan egingen den musika emanaldiak eta eskoletako haurrentzat egingen diren sentsibilizazio tailerrek osatuko dute Berinak III arte jaialdiaren egitaraua.

Ikusgarriak Larrekon

Larreko kulturguneak bi emanaldi interesgarri proposatuko ditu ondoko egunetan. Lehena *Herritmo* ikusgarria Kukai dantza taldea eta Kalakan hirukotea-



UTZITAKO ARGAZKIA

Julio Le Parc artista.

ren eskutik maiatzaren 22an, 20:30ean. Maiatzaren 29an, 20:30ean, *Hazparneko Anderea* euskarazko antzerkia taularatuko du Iduzki-Lore Lapurdiko konpainiak. Antzezlan hau eskuin eta ezker eskaini dute jadanik. Errepikak gure herrian, Larraldean egin zituzten Ander Lipus aktorearen zuzendaritzapean.

URDAZUBI

GIZARTEA → UDALAK HARTU DU ERABAKIA

Argindar hornidurarako enpresa publikoa sortu dute

Urtean 12 milioi Kw beharko direla uste dute

TTIPI-TTAPA

Duela urtebete baino gehiago hasi zen Udala argindarra komertzializatzeko konpainia bat (Comercializadora Urdazubi) sortzeko lanean, etorkizunean konpainia horren

bidez argindarra hornitzeko eta fakturatzeko herritarrei. Errota zaharrean jarritako instalazioaren eta monastegiak eraikitako kanalaren bidez eman izan da 2009. urtera arte argindarra eta Udalak banatu eta komertzializatu du Elektra Urdazubiren bidez. Baina araudiaren aldaketak eragin du konpainia berriaren sorrera. Gaur egun urtean 8 milioi Kilowatioko

kontsumoa du Urdazubik, baina Dantxarinek komertzio berriekin eta handitze laneekin, 12 milioi ere beharko direla uste dute.

Elgarrekin taldea aroztégiaz

Urdazubi Elgarrekin taldeak, aroztégi zaharra bota izana salatu du. Taldeak ez du argi Herriko Etxeak zer egin nahi duen eraikin berriarekin, «baina jakin dai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aroztégi zaharra bota egin dutela salatu dute.

tekeena da fite eraikitzen ari direla eta 360.000 euro inguruko kostea izanen duela». Taldeak salatu du Cerdernak eman zuen dirulaguntza zaharberritzeko zela, «eta inola ere ez eraikin zaharra

bota eta berria egiteko». Elgarrekin taldearen ustez, «gure ondarearen babesarekin zer ikusia duten erabaki garrantzitsuetan herritarren partehartzea derrigorrezkoa da» eta proiektu argi bat eskatu du.

SARA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 24AN

Ikastolaren besta ospatuko dute aurten ere Mendekoste bezperan

Sagardotegiko bazkaria zerbitzatuko da polikiroldegian, Saran'gak alaitua

Joana GERENDIAIN

Urtero bezala mendekoste bezperan, aurten maiatzaren 24an, Oihain ikastolaren besta ospatuko da Saran. Goizeko 11 etan kalejira bat abiatuko da ikastolatik Saran'ga-rekin, ondolik ikastolako haurrek kantaldi bat emanen du-

te. Besta horren kariatara polikiroldegiak sagarnotegi itxura hartuko du, eguerdi eta erditan tokiko sagarno kupelak idekiko dira eta ondolik sagarnotegiko bazkaria zerbitzatuko da, Saran'gak alaituko duena. Arratsaldeko 3etatik goiti haurrentzat puzgarriak izanen dira eta Joanes Etxebestek bere ikusgarria emanen du. Arratsaldeko 5 etan beti XUTIK taldeak polikiroldegia animatuko du. Erreserbak 063296 7131 zenbakira deituz egiten dira edo txartelak salgai izanen dira



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Berako Petti kantariak ere parte hartuko du maiatzaren 30eko Usopop festibalean.

Herriko Etxeko Edantegian. Bazkaria 23 eurotan da eta haurrentzat 6 euro.

Usopop festibala maiatzaren 30ean

Maiatzaren 30ean, Usopop elkarteak bere seigarren festibala antolatuko du. Aurtengo talde baiezatuak Eskoziako King Creosote, Mungiako Belako, Frantziako Thousand eta Wall of death, eta Berako Petti dira eta Lehiotik dantza ikusgarria eta A side b side dj set ere bertan izanen dira. Kontzertuak arratsalde-

ko 4etatik goiti hasiko dira, haurrentzako xoko bat izanen da eta tokiko janaria eta edaria ere gozatzeko ahaliko da. Gaualdia gaztetxean bukatuko da. Sartzea 10 eurotan izanen da.

Sarako Izarraren Joko berri finalak

Aurten, 3 mailak nahasirik, 52 ekipek Sarako izarrak antolatutako Joko berri txapelketan parte hartu dute. Joan den apirilaren 18an finalak jokatu dira. 3. mailan Peio Iribarren eta Piere Arotzarenak Antton Bimboire eta Lukas

Etcheverriren aurka irabazi dute 40-30. 2. mailan Eñaut Pery eta Christophe Mariluzek Amestoy/Noblia pareari irabazi diete 40-37. 1. mailan Iñaki Jauregui eta Sylvain Dufourg irabazle atera dira Gratién Camino eta Antton Haristoyen kontra 40-21.

Bilkura

Zazpiak dantza taldeak bilkura bat antolatu du kabalkada baten presentatzeko maiatzaren 22an, arratseko 8etan Lur Berrin. Bilkuraren bukaera aperitif eskainia izanen da.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) |
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA |

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



**ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA**

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425



EZKONTZAK

Asier Irurieta Almandoz eta **Patricia Izquierdo Diez**, Alkaiagakoak, maiatzaren 4an.

Unai Ordoki Agesta eta **Leire Hualde Zabalza**, Arantza eta Orbaitzeta-koa, maiatzaren 2an.

Damien Serra eta **Maidar Laussucq**, Sarakoak, maiatzaren 1ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Aritz Bertiz Juanenea, Sunbillakoa, apirilaren 20an.

Luxi Fagoaga Salaberri, Sarakoa, apirilaren 12an.

Maren Arraztoa Andueza, Iruritakoa, apirilaren 23an.

Elaia Arraztoa Andueza, Iruritakoa, apirilaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Clara Maisterrena Barrenetxe, Amaiurkoa, apirilaren 23an, 82 urte.

Dolores Ariztela Izurrieta, Etxalarkoa, apirilaren 23an, 93 urte.

Maria Mindegia Irazoki, Berakoa, apirilaren 25ean, 88 urte.

Tomasa Oteiza Maisterrena, Zigaurre-Zigakoa, apirilaren 25ean, 90 urte.

Avelina Telletxea Alzugarai, Lesakakoa, apirilaren 26an, 72 urte.

Jon Mihura Altı, Zugarramurdikoa, apirilaren 30ean, 39 urte.



**Severiano
MITXELENA JORAJURIA**

Sunbilla, 2011ko maiatzaren 18an
IV. URTEURRENA

*Maiatzaren 18a markatutako eguna
bat batean alde egin zenuna
zinen senar, aita eta atautxi kuttuna
bertze bide bat hartuz, guri utziz iluna
nahiz ez zaigun itzaliko
zugarako maitasuna*

EMAZTEA, ALABA, SENIDEAK ETA FAMILIA



Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA

Narbarten, 2006ko maiatzaren 6an
IX. URTEURRENA

*Nahiz eta gure begiek iada
ez zaituzten ikusten eta
gure muxuek ez dizuten ukitzen,
gure bizitzetan jarraitzen duzu egoten,
gu barrutik zuri sentitzen
eta gure bihotzak zu maitatzen,
etxeokak beti zutaz oroitzen.*

ZURE ETXEKOAK



**Avelina
TELLETXEA ALZUGARAI**

Lesakan, 2015eko apirilaren 26an, 72 urterekin



*Dena eman zenigulako
adiorik ez, gero arte baizik.*

ZURE FAMILIA

Kolore urdina gailendu zen Bizkaia pilotalekuan apirilaren 26an. Perfekzioetik gertu ibilita, Oinatz eta Untoriak 22-7 irabazi zieten Berasaluze II.a eta Zubietari. «Asko borrokatu

behar izan dugu txapela hau lortzeko» dio Oinatzek, izan ere, txapelketako partida guztiak jokatu dituzte eta azken unera arte ez zuten ziurtatuta finalerako txartela. Ilusioa izan

dute arma eta «guztia ematera atera dira partidaz partida kantxara». Garaipen hau ospatuta, ez du atsedenerako tarte handiegirik, buruz buruko borroka hasi da eta.

Oinatz BENGOTXEA BERASATEGI | Asegarceko pilotaria

«Txapela lortzea ez zen obsesioa, ilusioa baizik eta oso pozik nago»

E. IRAOLA | LEITZA

Sarien zerrenda osatu berri du Oinatz Bengoetxeak Binakako txapela eskuratuta. Duela hamar urte izan zuen binakako txapelketako finala jokatzeko aukera eta orduan esku hutsik itzuli zen Leitzara. Oraingoan ez, txapela buruan «oso pozik, ilusio ikaragarriarekin» dagoe la dio eta nabari zaio. «Asko borrokatu behar izan dugu txapel hau lortzeko eta borrokak bere fruitua eman du» aipatu digu Oinatzek, izan ere, txapelketako partida guztiak, 18 dena, jokatu ditu leitzarrak. Atzelari desberdinak izan ditu gainera bidelagun eta horregatik «txapelketa arraro xamarra izan» dela aitortu digu. «Andonirekin hasi nintzen jokatzuz, gero Ibai Zabalaarekin jokatu nuen partidu bat eta Untoriarekin partekatuz beste partida bat». Horrek ordea ez dio ilusioa kendu eta «pixkanaka pixkanaka» joan dira bidea egiten, «partida guztiak borrokatu eta guztia ematera atera gara kantxa. Borrokarako gogo hori izan da gure armarik garrantzitsuena». Finalurrekoetan ere, ez zen faborito argirik ikusten eta ezustekoa ere izan zen «Ezkurdia eta Zabaleta izan dira nire ustez bikoterik potenteena eta



ARGAZKIA: E. IRAOLA

2017ra arte luzatu dio kontratua Asegarcek leitzarrari.

arriskutsuenak ere be-
raiek zirela uste nuen.
Baina azkenean ez zu-
ten finalerako txartelik
lortu». Bere kasuan be-
rriz, azken txanpan egin-
dako partida onak izan
dira «azkenean eraba-
kigarriak». Garrantzi-
tsuenetakoa «Abel eta
Juanen aurka jokatu ge-
nuena izan zen. Auke-
ra gutxi genituen, bai-
na gauzak ongi aterata
lortu genuen aurrera egi-
tea». Horregatik, txape-
lak bezain beste, «txa-
pelketa osoan emanda-
ko mailak poztan» due-
la esan digu.

Finalaren hasiera ere
«gogorra izan zen, es-

HELBURUAK

««Finala, finala da eta bakoitzak bere buruari jartzen ahal dion presioa da presiorik okerre-
na. Irabazi nahi izateko eta galtzeko beldur hori gailentzea».

tu hasi ginen. Launa jarri ginen baina partida kastarekin jokatu ira-
baztea lortu genuen».

Finaleko egunean, kantxan eroso zegoela zirudien «egoerari neurria hartzea lortu nuen. Finala, finala da eta bakoitzak bere buruari jartzen ahal dion presioa da presiorik okerre-
na. Irabazi nahi izateko eta galtzeko beldur hori gailentzea». Horren aurrean, bere helburua «presiorik gabe, kantxara lasai ateratzea izan da segi-
dugun estrategia. Txapela lortzea ez zen obsesioa, ilusioa baizik eta oso pozik dago.

Kastarekin egin diegu aurre aurkariei».

Binakako txapelketa honetan lesioek zeresan handia eman dute. Den-
nera, 43 ordezkapen izan dira «fisikoki arazo asko izan dituzte pilota-
riek eta niri zuzenean eragin dit Aretxabaleta-
ren ordezkapenagatik». Oinatzek eskuetatik min pixka bat eduki du hiru partidetan, «baina ezin naiteke kexatu. Batzuk zioten pilotagatik zela, baina nik ez dut uste arrazoi zehatzik dagoe-
nik, zorte kontua dela uste dut. Dena den, egia da urte asko darama-
tzagula atsedetik hartu gabe, partida bat beste baten atzetik jokatzan eta nabaritu egiten da hori ere. Txapelketa bat bukatu orduko hasten da bestea, hori da pilo-
tazaleak eskatzen due-
na eta guri sistema ho-
rretara ohitzea tokatzen zaigu».

Binakako txapela ira-
bazi izana ospatu eta buruz burukoari begira dago orain. Txapelketa bera «oso zaila ikusten dut, belaunaldi berri bat indartsu datorrelako. Fi-
sikoki makina batzuk di-
ra, oso altuak, bizkor eta azkarrak eta teknikoki oso onak. Indar handia ematen diete pilotari eta arazo-
tan jartzen gaituzte». Borrokatzeko prest dago ordea, leitzarra bolada onari se-
gida emateko prest.

ERREMONTA → APIRILAREN 24 ETA 25EAN

Iruñeko eta Sagardoaren txapelak Malerreka

Zeberio II.a lagun zutela lortu zuten Etxeberria III.ak Labriten eta Endikak Galarretan

TTIPI-TTAPA

Zeberio II eta Endika Urrutia saldiastarrak ez zieten aukerarik eman Xanti Uterga eta Patxi Olazar doneztebarrei apirilaren 25ean Galarretan jokaturako Sagardoaren txapelketaren finalean eta 40-27 irabazi zuten. Sagardoaren lehen txapela da bizenat.

Hasiera hasieratik agindu egin zuten gorriek eta merezimendu osoz irabazi zuten txapela, emozio handiegirik gabeko finalean. Endika bikain hasi zen, sakearekin ez ezik piloteoan ere min eginez (10-1). Hortik aitzinera, gehienez ere zazpi tantora hurbildu zen Doneztebeko bikotea (12-5).

Endikak 9 tanto egin zituen sakez eta bertze bortz piloteoan eta finaleko onena izan zen. Atzelari hasi zenetik gero eta hobe moldatzen da. Zeberio ere 16 tanto bukatu zituen. Utergak 14 tanto egin zituen eta 6 pilota galdu eta Olazarrek launa tanto

egin zituen piloteoan eta sakearekin eta hiru pilota galdu.

Txapela jantzi ondotik, Endikak zioenez, «hasieran errenta ona hartu dugu eta horren ondorioz lasai jokatu dugu». Doneztebeko bikotea, aldiz, triste zegoen erakutsitako joku mailagatik, «hasieratik ez gara eroso aritu eta ez dugu deustan asmatu, horrela jokatzuz ezinezkoa da irabaztea», zioten.

Bezperan, Zeberio II.ak eta Joxe Etxeberria doneztebarrak irabazi zuten Iruñeko Alde Zaharreko bigarren erremon-te txapelketa, Labri-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitian, Uterga pilota astintzen, Endika eta Olazar begira dituela Galarretan. Beheitan, Iruñeko sari banaketa.

ten jokaturako finalean Xanti Uterga doneztebarrari eta Endika Urrutia saldiastarrari 40-31 irabazita.

Beraz, beteranoek gain hartu zioten gazteeni, defentsa sendoa-

rekin eta joku serioarekin. Beharbada urdinek egin zituzten jokaldi ikusgarrienak, baina hutsegite sobera ere bai. Beraz, Zeberio aste-buru berean bi txapel jantzi zituen.

SOKATIRA → NAFARROAKO 4X4 TXAPELKETA

Beti Gaztek irabazi du 320 kiloko txapela

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen apirilaren 25ean, Larraintzarren. Gizonezkoen 320 kiloko txapela eta emakumezkoen 255 kiloko bertan erabaki ziren eta Lesa-

kako Beti Gaztek eta Berriozarrek eskuratu zituzten, hurrenez hurren. Lesakarek eman zuten ezustea finalean. Lehen jardunaldiko ligaxkan bigarren eta bigarrenean Amaur C eta Berriozarren ondotik hirugarren izan arren, fi-



ARGAZKIA: XAGU-LESAKA
320 kiloko gizasemeen poduma, Beti Gazte, Berriozar eta Amaurko tiralariekin.

ARG. XAGU LESAKA

nalera sartzeko haina puntu pilatu eta azken bi tiraldiak irabazi zizkion Berriozarri. Amaur C hirugarren izan zen.

Pisu astunen ondotik, 300 kiloko txapela jokoan dago gizonezkoetan eta 235 kiloko emakumeetan. Hilaren 9an

jokatzekoa zen lehen saioa Lekunberrin eta maiatzaren 16an, larunbatean erabakiko da txapelduna Txantrean.

maiatzak 14 - 28

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Antzerkiak



DONAMARIA | 2015.05.17

'100 m²' antzerkia
Kulturaldiaren baitan

Iñake Irastorza, Ana Elordi eta Ramon Agirre bezalako aktore ezagunak protagonista dituela, 100 m² antzezlanak ikusteko aukera izanen da Donamarian.

Kontzertuak



SARA | 2015.05.30

Usopop jaialdiaren seigarren edizioa

Eskoziar, Frantziar eta Euskal Herriko taldeak gonbidatu dituzte aurten Usopop jaialdiaren 6. edizioan parte hartzeko, tartean Petti beratarra. 16:00etan hasiko dira.

Solasaldiak



IRURITA/SALDIAS | 2015.05.29/30

Jakoba Errekondo Ilburu berriaz ariko da bi egunez

Bizi baratzea izeneko liburuarekin du Jakob Errekondok eta haren berri eman bidenabar, bi hitzaldi eskainiko ditu: Iruritan hilaren 29an eta Saldiasen 30ean.

GOIZUETA

Reiki ikastaroa

Maiatzaren 30ean eta 31n udaletxean.

Antzerkiak

DONAMARIA

Antzerkia Jauregian

Maiatzaren 17an 100 m² antzezlanak (19:00).

BERA

Mugaz Gain jaialdia

Maiatzaren 14 eta 15ean DBHkoak.
Maiatzaren 21 eta 22an Haur eta Lehen Hezkuntzakoak. Xehetasunak Berako orrian.

LEITZA

Antzerki musikala

Maiatzaren 23an *One-ka marrazoa*, zinemaren 17:00etan.

SENPERE

'Hazparneko anderea'

Maiatzaren 29an Larreko Kulturgunean 20:30etan.

Kontzertuak

ESKUALDEA

Instituetako musika topaketak

Maiatzaren 13an Donezteben.
Maiatzaren 14an Lekarozen.
Maiatzaren 15ean Leiztan.

LESAKA

Iruñeko orfeoa

Maiatzaren 16an elizan, 20:00etan.

BERA

Musika Eskolako entzunaldiak

Maiatzaren 19an piano entzunaldia, 17:30etan.
Maiatzaren 20an perkusio entzunaldia, 18:00etan.
Maiatzaren 22an trikitixa eta akordeoi entzunaldia, 18:00etan.
Maiatzaren 27an bibolin entzunaldia (18:00).

Erakusketak

LEITZA

Saharar herriaz

Maiatzaren 14tik aurrera argazkiak Aurre-ran eta tabernetan.

ELIZONDO

'Baztan: Barrenetik kanporat'

Maiatzaren 21era arte Artea Oinez ekimenaren barne, Arizkunenean.

BERA

Ricardo Barojako argazki rallyko argazkiak

Maiatzaren 28an eta 29an Kultur Etxean (18:00-20:00).

Solasaldiak

LEITZA

Kultur Aroaren barne

Maiatzaren 18an *Kuba-AEB arteko harreman berriei*, 19:30ean Atekabeltzen.
Maiatzaren 19an Bizi-lur proiektua hizpide, Atekabeltzen (20:00).
Maiatzaren 21ean *Erriberako paloteadoak*, 19:30ean Aurreran.
Maiatzaren 23an Kirolean berdintasuna?, Atekabeltzen (20:00).
Maiatzaren 27an *gaitasun handiak eskola mailan antzeman eta*

jardun, Aurrera (19:30).

Maiatzaren 28an Umorearen gerra.

DONEZTEBE

Konpostaren inguruan

Maiatzaren 27an (12:00) eta **29an** (19:00) Mankomunitatean.

IRURITA

Jakoba Errekondo

Maiatzaren 29an 19:30ean Jauregiarten.

SALDIAS

Jakoba Errekondo

Maiatzaren 30ean 09:30ean eskolan.

Jardunaldiak

ITUREN

Nafarroako Landa Eremuko eskolen V. jardunaldiak

Maiatzaren 23an eskolan (10:00-14:30).

Tailerrak

ELIZONDO

Eguzkiloreren Aste Kulturalaren barne

Maiatzaren 13an Irritrapia Arizkunenean, dohainik. 19:00etan.
Maiatzaren 14an Luzaketak Arizkunenean, dohainik. 17:00etan.

PROPOSAMENA

LEITZA

Ekitaldiz betetako hilabetea

Hutsik egin gabe, ekitaldiz hornitutako egitaraua prestatu dute Leiztan maiatzaren 14tik ekainaren 13ra Kultur Aroaren baitan. Tarte horretan, hitzaldiak, mahai-inguruak, erakusketak, kontzertuak, ikuskizunak, mendi ateraldiak... izanen dira ia egunero. Eta egitarauaren barne, aurten XXXVII. aldiz Artisau Azoka egingen dute maiatzaren 31n.



Maiatzaren 29an txistu entzunaldia, 18:00etan.

Bera kantari

Maiatzaren 30ean
19:00etan Illekuetan.

LEITZA

Kultur Aroaren barne

Maiatzaren 16an Jubin Iru-xulo (20:00) eta Zo-pilotes Txirrius (00:00) Ate-kabeltzen.

Maiatzaren 17an Sin-fonietta Academica eli-zan, 12:30ean.

Maiatzaren 23an *Pa-txiren Botila*, 11:30ean Erletan. 17:00etan *Ene kantak* zineman.

Maiatzaren 29an *Te-matikoktela* kontzertua, 18:00etan zineman.

Maiatzaren 30ean Go-vernors eta Dama, Ate-kabeltzen, 00:00etan.

ELIZONDO

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorio-ko ikasleen saioa

Maiatzaren 22an Ariz-kunenean, 19:00etan.

IGANTZI

Su Ta Gar eta Kalera

Maiatzaren 23an
22:30ean frontoian.

SARA

Usopop jaialdia

Maiatzaren 30ean
16:00etatik aitzinera.

Bertsoak

GARTZAIN

Bertso-afaria

Maiatzaren 23an Julio Soto eta Andoni Ega-ñarekin.

Ikuskizunak

SENPERE

'Heritimo' ikusgarria

Maiatzaren 22an Kukai eta Kalakan Larreko Kulturgunean (20:30).

LEITZA

Burdin hariak eta plastikozko goilareak
Maiatzaren 20an.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



Neska kuadrilla bat eta horietako baten anaia elba-rria, gupil-aulkian ibiltzen dena, dira liburuko pro-tagonistak. Arrikruzko leize-zuloa ikustera joan dira eta hunkituta gelditu dira hango lehoiaren begirada tristearekin. Gauean, Ainhoak amets misteriotsu bat izan du: Arrikutzen ikusi duen lehoi ama agertu zaio erregu bat eginez: «Han barruan dauden bere kumea-ren hezurak bilatu, atera eta amaren ondora ekar di-tzala, amaren babesa izan dezan betiko». Neskak amets hau bere kuadrillakoei kontatu die eta denen artea erabaki dute lehoi amaren desioa beteko dute-la kosta ahala kosta. Baina eginkizuna zaila suertatu-ko zaie. Hasteko, heldu guztiek zalantzan jartzen du-te neska baten ametsa horrelako lan bati ekiteko na-hiko arrazoi izan daitekeen. Udaletxean, eta espeleo-logo eta zientzialarien artean sinesgogorkeria da na-gusi. Hala ere, neskek lortzen dituzten beren asmoak aitzinera eramateko laguntzaileak. Bilaketa lana se-kretuan eramanen dute inork deus jakin ez dezan.

Lain taldearen hirugarren lanak *Tximeletak* izen-burua du. Helduago egin dira, nagusiago, eta tximeleta bihurtu, haren kolore guztiekin. Rocka eta poparen melodiek taldearen sendotasuna ekarri dute. Kristina Aranzabek (ahotsa), Leire Berasaluzek (ahotsa), Ion Altunak (bateria), Jabi Riverok (baxua), Joseba de Arribak (gitarra) eta Mikel Benitok (gitarra elektrikoa) osatutako tal-dearen azken lana da eta Leire eta Kristinaren ahotsen indarrak berriz ere entzulea beregana-tuko du. Gibelera eginez, Lain taldea Villabonan (Gipuzkoa) 2008an sortu zuten hagitz gazte zi-ren bost lagunek. *Zure doinua* abestiaren ber-tsioa Youtuben zintzilikatu ondotik, milaka izan ziren ikustera hurbildu zirenak. Handik guttira, Gaztea maketa saria irabazi eta BBK Live-n jo zuten. *Tximeletak* diskoaren aitzinetik bertze bi kaleratu dituzte: *Lain* (2009) eta *Leioak* (2011).

Bideoak

LEITZA

Saharar herriaz

Maiatzaren 14an Ate-kabeltzen eta **15ean** Aurreran (19:30).

Mendi Erronkaren baitan

Maiatzaren 29an *Tor de Geants*, arratsaldez.

Azokak

LESAKA

Bidasoaldeko arte eta artisautza 2. azoka
Maiatzaren 23an.

SUNBILLA

Artisau feria eta gazta lehiaketa
Maiatzaren 24an.

LEITZA

Artisau Azoka

Maiatzaren 31n.

Ospakizunak

DONAMARIA-GAZTELU

Kulturaldia

Maiatzaren 13tik 17ra.

DONEZTEBE

Nafarroako Folklore Funtzaren besta

Maiatzaren 17an.

GARTZAIN

Asteburu berezia
Maiatzaren 22 eta 23an.

LEITZA

Kultur Aroa

Maiatzaren 14tik ekainaren 13ra.

SARA

Olhain ikastolaren besta
Maiatzaren 24an.

BERA

Mintza Eguna
Maiatzaren 30ean.

ELGORRIAGA

Malerrekako Eguna
Maiatzaren 30ean.

SUNBILLA

Asteburu kulturala
Maiatzaren 22tik 24ra.

Bestak

IRURITA

Herriko bestak

Maiatzaren 13tik 17ra.

URDAZUBI

Herriko bestak

Maiatzaren 13tik 17ra.

BERROETA

Herriko bestak

Maiatzaren 22tik 25era.

Mendi irteerak

ETXALAR

Zanpingorri taldea

Maiatzaren 17an Iru-belakaskora (08:00).

Maiatzaren 24an Zubi-rira 07:30ean plazatik.

Maiatzaren 31an Ara-larrera, 07:00etan.

BAZTAN

XXII. Mendi Itzulia

Maiatzaren 31n
Azpilkuetan.

Mendigoizaleen ateraldiak

Maiatzaren 24an Ata-rriabara, 07:30ean.

LEITZA

Haur eta gazteentzat

Maiatzaren 16an
09:00etan plazan.

Pasai Donibane-Jaizkibel-Hondarribi

Maiatzaren 16an
07:30ean Oialdetik.

Mendi Erronka

Maiatzaren 30ean.

BERA

Mendi Itzulia

Maiatzaren 17an.

DONAMARIA

Bi ibilbide aukeran

Maiatzaren 17an
10:30ean abiatuta.

ARANTZA

Goizuetara mendiz

Maiatzaren 23an
07:30ean plazatik.

SUNBILLA

Oinez eta bizikletaz
Maiatzaren 23an
08:30ean.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, 60 m²ko bajearekin. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Bajera eta etxea elkarrekin. 112.000 euro negoziagarriak. Nahi izanez gero, aparte ere salgai. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldea mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

LESAKA. 98 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela 1, egongela su bajearekin, sukaldea despentsarekin eta mobleztatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederrarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎609 445769.

IRUÑEA. Buztintxuriauzoan pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, igogailua, aparkaleku eta trastelekuarekin. Mobleztuta, kalitateko eraikina eta altzariak. Komunitadeko lorategia, inguru lasaia eta ongi komunika-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tuta. 153.000 euro. ☎655 826221.



ELGORRIAGA. Pisu berri-
rriztatua salgai. ☎629 734263 (arratsalde).

ETXALAR. 85m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela eta 2 komunekin. Sukaldea mobleztatua dago eta etxe-tresnekin. Garajea eta trastelekua ditu. ☎678 006425 / 948 635017.

LESAKA. Ote kalean, 85m²ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, balkoia, trastelekua eta aparkaleku batekin. Prezioa negoziagarria. ☎650 655448.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko


IRUÑEA. Pisu errentan emateko. 3 ikaslerentzat aproposa, bi unitbertsitateen erdian. ☎639 401147.

ETXALAR. Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.



LESAKA. Eltzeta karrikan 100 metroko etxea errentan emateko. 450€

hilean. Oso argitsua eta 4 logelarekin. ☎686 378154.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

BERA. Berako bikote gazte batek Beran etxebizitza edota baserria errentan hartuko luke. ☎664 386589.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. 93 m²ko baje-
ra salgai, Koskontako Bidea 11n. Etxebizitza egiteko aukerarekin. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. ☎609 445769.

LESAKA. 48 m²ko baje-
ra salgai edo errentan emateko, Koskontako Bidea 3. zenbakian, beheko solairua 6. Alarma sistemarekin, pertsiana elektrikoarekin eta bikomun. Bulegoa izateko prestatua. ☎609 445769.

DONEZTEBE. 133 m²ko baje-
ra salgai, Leitzako bidean, 66. zenbakian. Prezio interesgarria. Saltzeko premia. ☎948 456010.

LESAKA. Haizegua osatua salgai. ☎677 594893.

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan emateko

LESAKA. Eltzeta karrikan, 2 lokal, bakoitza 44m²koa, errentan emateko. Aukera dago biak batera (88m²) edo bakarra (44m²) alokatzeko. Bulegoak jartzeko prestatuak. ☎600 657020.



LESAKA. Bittiria karrikan dagoen janari-denda errentan eman nahi da. Negozioz aldatzeko aukera ere bada. ☎616 889459.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(apirilaren 24tik maiatzaren 1era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA****Zerrikumea**

(19 kilo): 47 € (=)

Zerri gizena

1,185 € kilo. (+0,008)

Zerramak:

0,470 € Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA****Aretze gizenak:****Idixkoak:** €/kg. Kanal**Extra** 4,16**1.koa** 4,96**2.koa** 3,78**Urruxak:** €/kg. Kanal**Extra** 4,26**1.koa** 4,00**2.koa** 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00

idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,90/6,50

8-10 kilokoak: 5,50/5,70

LURRAK/ORUBEAK salgai

SUNBILLA. Etxea erai-
kitzeko 5.000m² ko par-
tzela urbanizatua sal-
gai. ☎699 146685.

BERA. Herrigunetik 100
metrotara eta hagitz le-
ku lasaian, etxea eraiki-
tzeko prest dauden par-
tzela urbanizatuak sal-
gai. Deitu 18:00etatik ai-
tzinera. ☎618 963226.

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ZERBITZUAK denetarik

Detektibe pribatua. Le-
gezkoa, euskalduna, 24
ordutan konpromisorik
gabeko aurrekontua es-
kaintzen dizugu. Blunt
Detectives. Iruñean-Na-
farroan. ☎948106237 /
637 368839.



LANA eskaintzak

ZUGARRAMURDI.
Graxiana aterpean zer-
bitzaria behar da. Fran-
tsesa pixka bat menpe-
ratzen duena. ☎675
711498.

LANA eskariak

Doneztebeko **neska euskaldun** bat dende-
tan dependienta, adine-
ko pertsonak zaintzen,
etxeak garbitzen, zerbi-
tzari, sukalde laguntzai-
le edo administratiba
bezala lanean aritzeko
prest Malerreka, Baz-
tan aldean. Kotxe pro-
pioarekin. ☎649901395.
42 urteko **emakumez-**

ko langilea, arduratsua,
exijentea, itxura onekoa
eta esperientziarekin lan
bila: etxe eta enpresak
garbitzen edota adine-
koak eta haurrak zain-
tzen. ☎634 740317.

ANIMALIAK salgai

Asto emeak salgai, ko-
lore gisa, tamaina ertain-
a eta mantsoak. Bela-
gian egondakoak. Ama
oso ona, kume jaiobe-
rriarekin. Bi urtekoa.
Bertzea, oso polita eta
ona. Prezio negoziaga-
rria. ☎690 181644.

ANIMALIAK oparitzeko

Txakur emea oparitze-
ko. ☎686 686160.



**Hilabeteko txakurku-
meak** opari. Artzai tx-
kur eta border collie na-
hasketa. Bi eme eta bi
har. ☎636 113244 / 699
329581.



MOTORRAK salgai

Traktorea salgai, BJR
modelo F-672. Remol-
kea trakzioarekin. 3.200
ordu. Konpromisorik ga-
be ikus daiteke. ☎661
845057.



MOTORRAK tailerrak



DENETARIK salerosketak

ORONoz. Egurra xe-
hetua salgai. Pagoa eta
haritza. Etxera eraman-
en da. ☎676 242520.



**Zortzi marmolezko
mahai** salgai, zortzi la-
gunendako (oktogona-
lak). ☎948 585036.



SUNBILLA. Su egurra
salgai, lotean edo xehe-
tua. ☎659 867287/ 699
461394.

**Sei altzairuzko frega-
dera** salgai, haundiak,
1,5 metro luze, forma
borobildunarekin. ☎948
585036.



Oxelo markako **linea-
ko patin frenodunak**
salgai (44 neurrikoak,
beltz kolorekoak, behin
bakarrik erabiliak) eta
Oxelo markako patinen-
tzako **motxila**, osaga-
rriak, sakeleko telefo-
noa eta abar eramate-
ko poltsikoduna. Behin
bakarrik erabiliak. ☎645
700355.



BERAKO UDALA

**TOKIKO GOBERNU
BATZORDEAREN
AKORDIOA**
—HIRIGINTZA—

Berako Udaleko Tokiko
Gobernu Batzordeak,
2015eko apirilaren 21ean
egindako bilkuran, 7. Sek-
toreko UEFan Boron-
datezko Birzatiketa
Proiektua eta Hirigintza
Hitzarmenaren aldaketa
onetsi zuen hasiera ba-
tez:

Espedientea jendaurre-
an izanen da hogei egu-
nez, dagokion iragarkia
NAOn argitara ematen
direnetik.

Bera, 2015.05.05
ALKATEA,
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

DENETARIK galdu-aurkituak

LESAKA. Bizikleta bat
aurkitu dute. ☎948
637947.

BERA. Haurren bizikle-
ta desagertu da Kan-
tonberri karrikan. Co-
nor markakoa, beltza
eta berdea. ☎661
460266.

ttipi-ttapa
(0034) 948 635 458
erran.eus

Komunikazio elementuak garatzen ditugu : DISEINU GRAFIKOA

IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK: Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK: Boletoak, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak...

EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK...

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA


T. 948 635 458

kulturkari@ttipi.eus

www.kulturkari.com

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€ Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



IBAIK maiztaren 28an 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez gure morrokoari eta mila muxu pottolo.



Goizuetako ILARGI INDAKOETXEA Mendizurik urtea bete du apirilaren 30ean. Mila muxu eta zorion gure etxeko printzesa txikiari Goizueta eta Hernaniko familia guztiaren partetik.



Etxalarko XABIER LARBURU ELIZALDEK maiztaren 10ean bere lehenengo urtea bete du!! Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik!



ETXAHUN OLAETXEA ZATOK 5 urte bete ditu maiztaren 2an. Zorionak amaxi eta familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat.



PAUL IRAZOKI MANTEROLA sunbilda-rrak maiztaren 19an urteak bete-ko ditu. Aunitz urtez! Zure seme Pablo, Alizia eta familiaren partetik.



Igantziko AMADOR TXOPERENAK apirilaren 30ean urteak bete ditu. Zorionak zure biloben partetik eta segi horrela, gazte-gazte.



Lesakako UGAITZ eta MAITANE CANAL ARTOLAK urtea bete dute maiztaren 4an. Zorionak! Ze jatorrak zaudeten! Muxu handi bat aitaxo, amaxo eta Julenen partetik!



Lesakako EKIÑE SALGADO SOLOK maiztaren 14an 9 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat.



Berako AINHOA LARRETXEAGIRREK 19 urte beteko ditu maiztaren 13an. Aunitz urtez etxekoan partetik.



IRAITZ ZUBIETA IRIBARREN etxalarka-rrak 2 urte bete ditu maiztaren 11n. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki Alazne zure ahizparen partetik. Ongi pasa!



Iturengo NAROA ELIZALDE LARRETXEAGIRRE gure etxeko tikiak 2 urte eginen ditu maiztaren 19an. Zorionak Legasa eta Iturengo fami-lien partetik eta bereziki aita, ama eta Oinaten partetik.



Zorionak Berako HELENERI! Ailegatu da zure eguna! Maiztaren 13an sei urte beteko dituzu. Egun ona pasa eta muxuak denon partetik, eta batez ere Bidea ahizparen partetik. Ailegatu da uda!



Arantzako OIER IPARRAGIRRE ALBERDIK urtea beteko du maiztaren 12an. Zorionak Arantzako eta Erreterriako familiaren partetik, eta berexiki attatto, amatto eta Aritzen partetik. Muxu haundia maizta, aunitz maite zaitugu!



IZARO SALLDIAS eta NAIARA SALLDIAS izeba-lobek urteak beteko dituzte maiztaren 14 eta 23an. Zorionak Iturengo familiaren partetik eta berexiki Lorearen partetik!



egin zure erosketa
erran.eusen

argazki
soila

4

EURO

aldizkarian
eta
interneten


argazki
bikoitza

8

EURO

TELEFONO GIDA 2014

Baztan | Bertizarana | Bortziriak | Leitzalde | Malerreka | Urdazuri



Den-dena eskura eduki nahi baduzu, **Ttipi-ttapa**ko **TELEFONO GIDA**n aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak: ofizialeak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak, partikularren telefonoak... Denak.

Informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua.

INGURU HONETAKO ETXE GUZIETAN **ZURE** **NEGOZIOAREN BERRI** IZATEA NAHI BADUZU, **JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN** **ETA MILAKA PERTSONEK IRAKURRIKO DUTE ZURE ANUNTZIOA**

PUBLIZITATEA KONTRATATZEKO AZKEN EPEA: **MAIATZAK 29**

Tel.: **948635458** | e-posta: **publi@ttipi.eus**
Helbidea: Koskontako bidea 7, 31770 **LESAKA**



ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

~%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
www.ttipi.eus

DESKONTUAK

IPINGI

ELIZONDO
%10, 30etik gorako gastuan

IPARLA kirolak

ELIZONDO
%8, 30etik gorako gastuan



ARRATE ESTETIKA ZENTROA
DONEZTEBE | %10 "Skeyndor
Eternal" krema guztietan



DONEZTEBE
%10eko deskontua oinetakoetan



%5, 5etik gora, kopietan,
enkuadernazioetan eta inprentako
zenbait lanetan (ezkontza gonbidapenak,
oroitgarriak...). Argibideak dendan



DONEZTEBE | %5 kosmetikan

ZOZKETAK

1

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



2

TXOKOLATE LOTEA
Arkupe
www.arkupegozotegia.com



3

2 LIBURU
Erein argitaletxea
"Tigrearen emaztea" | "Basajaun eta Martin"
www.erein.eus



4

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com



5

2 SARRERA
Sorginen lezeak
www.turismozugarramurdi.com



6

"Bertsu 2008" Liburua + DVDa
"Galtzagorriei to, Inaxito" Liburua + DVDa
Lanku | www.lanku.com



637. ALEKO IRABAZLEAK

2 SARRERA | Aquariuma
Marta Mariezkurrena | **ELGORRIAGA**
MARTIKO LOTEA | Martiko
M^a Jose Arrutia | **ORONÓZ-MUGAIRI**
2 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea
"Hildako-bizidunen itsas bidaia" Juan M^a Almandoz | **ARANTZA**
"Burgi, Maite zaitugu!" Izaskun Otxandorena | **DONAMARIA**
"Txo, Mikmak Txikia" Cda | Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Begoña Galarregi | **ELIZONDO**
2 SARRERA | Irrisarri Land
Marisol Zubieta | **LESAKA**
"Bertsuak 2009" DVDa | Lanku
Inaxio Telletxea | **IGANTZI**
"Apaizac Obeto" DVDa | Lanku
Garbiñe Leitza | **ITUREN**

ТТИПІ-ТТАРА

Malerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi eta Leitzakoa
bazara **guk** deituko dizugu.

Gainerakoak informazioa lortu nahi baduzue deitu
948 635 458 telefono zenbakira edo gurekin harremanetan
jarri **bagoaz@ttipi.eus** posta elektronikoan